

3,80 euro
AEKren aldizkaria
2024ko otsaila

aizu!

484

Gasteizen,
liburu artean
utopiarantz

Santa Ageda
egun luzea
Altsasun

Stephen King
labur-labur

Azterketak
Euskaraz,
Korrikaren
omendua



JUAN LUIS ZABALA
EUSKAL MUNDU TXIKIAN



Lezoko Unibertsitateko Udala

Informa zaitez
zure herriko euskara ikasteko
beka aukeraz!

Euskaraz zara,
euskaraz gara.

LEZOKO

komertzioetan, esan!

Bai Euskarari!



EUSKARA
ZERBITZUA

☎ 943 513 476

euskara@lezo.eus

www.lezo.eus

FOKU



12
Amaia Aldai arin-arin

Oihaletxea



20

Stephen King
labur-labur

23

Eva Forest
Liburutopia

27

Azterketak Euskaraz,
Oihaletxea-n

30

Zelan euskaraz?
Reyes Ilintxeta

31

Altsasuko kintoak



Jon REJADO



GUAIXE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAK
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK)

Koordinazioa: Eñaut Mitxelena. **Erredakzioa:** M. Egimendi, Eñaut Mitxelena.

Kolaborazioak: Joxe Rojas, Gotzon Hermsilla, Aitor Fdez. de Martikorena, Jon Rejado, Inhar Iraizotz, Onintza Enbeita, Alessandro Ruta, Andoni Urbistondo, Maider del Olmo, Marcos Tedin, Esti Lanao.

Hizkuntz arduraduna: Usoa Alberdi. **Argazkilariak:** Amaia Zabalo, Mikel Martinez de Trespentes. **Azaleko argazkia:** Javi Colmenero. **Diseinua eta maketazioa:** Eba Arratibel.

Komikiak: Eñaut Aiertzagüena Bravo, Zaldi Eroa.

Publizitatea: Xabier Garmendia • Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 596 112 • aizupubli@aek.eus.

Egoitza nagusia: Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 638 660 • aizu@aek.eus.

Administrazioa eta harpidetzak: Juanma Etxebeste • Iztueta kalea 3, behea • 20001 DONOSTIA • Tel. 607 532 846 • juanma-e@aek.eus.

Inprimaketa: Antza.

L. G. BI-242881

ISS 1132-1709

Aizu! ez du nahitaez bat egiten kolaboratzaileen iritziekin. Erantzukizuna egileena da.



<https://sites.google.com/view/hitzgurutzatuak> webgunean eman daiteke izena, eta xehetasun guztiak jaso. Irudian, 2008ko txapelketa.

XEDERA

Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Txapelketa, bueltan

Hamar urteren ondoren, bueltan da Euskal Herriko **Hitz Gurutzatuen**¹ Txapelketa. 2007tik 2014ra bitartean bezala, Irunen egingo da. Izan ere, Gipuzkoako hiria euskarazko hitz gurutzatuen epizentroa izan da aspalditik: Joxean Elosegik sortutako Luma enpresak 90eko hamarralditik jardun zuen euskarazko denbora-pasak sortzen, eta haren ekimenez sortu ziren bai txapelketa bai jada desagerturiko *Luma* aldizkaria. Orain, Elosegik berak eta Irungo Aitzondo euskara elkarteak berriz heldu diote lehiaketari, 23. Korrika Irundik abiatzeak

emandako bultzada ere lagun. Martxoaren 2an egingo da, Irungo Palmera-Montero gunean, goiz osoan. Parte hartzaileek bi ariketa egin beharko dituzte lehenik, eta lau onenak finalera pasatuko dira. Bertan, panel handi bat jendaurrean bete beharko dute. Lau onenek sari ekonomikoa jasoko dute, eta irabazleak, nola ez, txapela. Ondoren, parte hartzaile guztiakin bazkaria egingo dute. Irungo Udalaren laguntzarekin antolatu dute txapelketa, eta aurreantzean ere segida emateko asmoa dute. Hitzak eta **garuna**² astintzera animatuko?

i



MARIASUN LANDA

Idazle gipuzkoarrak 2023ko Emakunde saria jasoko du, otsailaren 6an, sormenaren bidez bai berdintasunari bai emakumeen eta nesken duintasunari egindako ekarpenagatik, baita feminismoa eta euskara lotu izanagatik ere.

ze



PABLO BERGER

Zinema zuzendari bilbotarraren *Robot Dreams* lanak Animaziozko Film Onenaren Oscar saria eskuratzeko izendapena lortu du. Dog txakurraren eta haren robot lagunaren arteko adiskidetasun istorioa kontatzen du.

na



NINA ALBERG

Idazle frantsesaren *La dernière amazone* liburua euskaratu du Josu Zabaletak. *Azken amazona* Erein argitaletxeak plazaratu du, eta Amazonian gizonezkoengandik bereizita bizi izan ziren icamiaba emakumez dihardu.

k



ISABEL VERDINI

Dantza irakasle donostiarrak 2024ko Urrezko Danborra jaso du. 30 urte daramatza dantza prestakuntzan, batez ere desgaitasunen bat duten pertsonekin, eta agertokian aniztasuna erakusteko irakaskuntza metodoa sortu du.

**HIRU LETRATXU****Onintza Enbeita**

Hil arte bizi

Badago istripuz hiltzen den jendea, inork halakorik gerta daitekeenik espero gabe. Gogorra da. Ingurukoentzat une latzak izaten dira, eta **bat-batekotasunak**³ konplikatu egiten du heriotzaren asimilazioa. Beste batzuk luzaroan eutsi eta gero hiltzen dira. Teorian, ingurukook onartu eta digeritu egin ahal izaten dugu heriotza, baina gertatzen denean beti harrapatzen gaitu esperantza izpi baten bila. Bagenekien gertatuko zela, baina gertatu denean kolpea izan da. Ez espero gabeko heriotza baten adinakoa, baina bai oso gogorra. Beti nahi izango genuke egun bat gehiago egon maite dugun horri eskutik helduta.

Hiltzeko era ugari daudela kantatzen zuen Negu Gorriak eta, seguruenetik, kantatzen zutenek pentsatu zituztenak baino askoz gehiago egongo dira. Kontua da hiltzeko bete behar dugun baldintza nagusia bizirik egotea baino ez dela. Eta hori hala ez balitz bezala bizi gara. Sekula hilko ez bagina bezala

bizi gara, baina guztiok hilko gara, eta, Joseba Sarrionandiaren hitzei helduta, nik ere pentsatzen dut heriotza ez dela inoiz ederra izan. Eta esaldi horri neure hitzak gehituko nizkioke: sufrimendua amaitzeko iristen denean ere, ez da ederra izaten. Elementu **narrasak**⁴, **baldarrrak**⁵, gogorrak eta desatseginak ditu heriotzak. Ez dugu asmatzen nola jokatu, beti ez dugu jakiten hildakoaren azken nahia zein zen, beti ez dugu minez dagoenari esateko hitz egokirik aurkitzen, eta mina kanalizatzea lan neketsua da.

Maite dugun jendearen heriotzak beti uzten gaitu ahoan berbaren bat esan gabe dugula, **zaugarri**⁶, **minbera**⁷ eta bizitzaren iheskortasunaz kontziente. Aurten, urtarrikak beste norbait kendu dit, baina otsailak egun bat gehiago dauka. Eta hori ere bizi egin nahiko nuke. Amaierari bizkarra eman badiezaiokegu ere, bizkarrez ere harrapatuko gaitu. Beraz, ez dezagun ahaztu hil arte bizi zela. Hil arte. Bizi.

ESANAK

“Maitasuna, konpartitzen baino, ez gara kontsumitzen ari?”

KARMELE JAI0, IDAZLEA

“Euskara askoz gertuago dago heriotzatik osasun betetik baino”

IÑAKI IURREBASO, SOZIOLOGOA

“Gatazka baten berri ematera doan gizona heroia da; emakumea, aldiz, zoroa”

ANE IRAZABAL ELKOROBARRUTIA, KORRESPONTSALA

“Protesta sozialik gabe ez dago demokraziarik”

ESTEBAN RODRIGUEZ ALZUETA, ABOKATUA ETA UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

“Iguale, sortzaile euskaldunak baino, sortzaile euskaltzaleak beharko ditugu”

GORKA URBIZU, MUSIKARIA

1. Hitz gurutzatu: *crucigrama (es), mots croisés (fr).*

2. Garun: *cerebro (es), cerveau (fr).*

3. Bat-batekotasun: *instantaneidad (es), instantanéité (fr).*

4. Narras: *zikin.*

5. Baldar: *tosco, -a (es), maladroit, -e (fr).*

6. Zaugarri: *vulnerable (es), vulnérable (fr).*

7. Minbera: *sensible (es), sensible (fr).*

irritzia




ELIKADURA HEGO KOREAN DEBEKATU EGINGO DUTE TXAKUR OKELA SALEROSTEA

Txakur haragi **erregosiak**¹ nahiko hurbil du **iraungitze data**² Asiako herrialdean. Hegokorearren plateretan, batez ere adinekoak direnen artean, nahiko ohikoa izan da jaki hori, baina laster ez da eskuragarri egongo, txakurrak haztegiatan hil eta haien haragia jateko saltzea legez kanpoko izango delako 2027tik aurrera. Hala erabaki du Hego Koreako parlamentuak, legez. Dena den, ez dago oso argi txakur okela jatea ere debekatuko duten, kartzela zigorrak eta isunak giza kontsumorako txakurren hazleentzat eta banatzaileentzat bakarrik aurrekusi dituztelako. Joan den urteko inkesta baten arabera, galderari erantzun ziotenen % 8k baino ez zuten aitortu aurreko 12 hilabeteetan txakur okela jan zutela; 2015ean, aldiz, % 27k erantzun zioten baietz **itaun**³ berari. Gainera, iazko inkestatuen **bosten**⁴ batek baino gutxiagok **onetsi**⁵ zuen haragi horren kontsumoa.



Darwis ALWAN-PEXELS



KLIMA 2023A, INOIZ NEURTUTAKO URTERIK BEROENA

Industriaurreko datuekin alderatuta, **iaz**⁶ 1,48 gradu beroagoa izan zen Lurreko tenperatura, batez beste. Hau da, inoiz neurtu den urterik beroena izan zen. 2023an, urte osoan gairitu ziren ordura arteko markak. Esaterako, industriaurreko erreferentziekin konparatuta, urteko egun guztiak izan ziren gradu bat beroagoak. Europar Batasunak klima aldaketa aztertzeko sorturiko Copernicus zerbitzuak jaso ditu datuok, Lurreko klimari buruz urtero egiten duen txostenean. Tenperaturen igoera azaltzeko, **berotegi-efektuko**⁷ gasen pilaketa aipatu du Copernicus-ek. Izan ere, inoizko kontzentrazio handiena neurtu dute atmosferan. Horrez gain, *El Niño* fenomenoak zerikusia izan du. Copernicusen arduradunek nabarmendu dutenez, ekonomia ahalik eta azkarren deskarbonizatu behar da, klima larrialdiari aurre egiteko. 1,5 graduren **langa**⁸ ez da **nolanhikoa**⁹. Zientzialarien esanetan, klima aldaketaren kalteak ugartu eta azkartu egiten dira hortik gorako tenperaturekin.

1. Erregosi: *estofar (es), étuver (fr).*

2. Iraungitze data: *fecha de caducidad (es), date de péremption (fr).*

3. Itau: *galdera.*

4. Bosten: *quinto (es), cinquième (fr).*

5. Onetsi: *onartu, ontzat eman, ondo iruditu.*

6. Iaz: *joan den urtea.*

7. Berotegi-efektuko: *efecto invernadero (es), effet de serre (fr).*

8. Langa: *muga.*

9. Nolanhiko: *garrantzi gutxiko.*

10. Aurkeztu: *presentar (es), présenter (fr).*

11. Hautatu: *seleccionar (es), sélectionner (fr).*

12. Hitzordu: *cita (es), rendez-vous (fr).*

GAZTEAK EUSKARABENTURAN PARTE HARTZEKO EPEA IREKI DUTE

Uztailaren 1etik 31ra, Euskal Herriko eta diasporako 125 gaztek Euskal Herria zeharkatuko dute, oinez eta euskaraz. Aurten, 2007an eta 2008an jaiotakoek egin ahal izango dute, baita 2006 eta 2009 urteen artean jaiotakoek ere, baldin eta Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa edota diasporakoak badira. Parte hartu nahi dutenek zabalik dute dagoeneko izena emateko epea. Horretarako, aurkezpen bideo bat eta banakako proiektu bat **aurkeztu**¹⁰ beharko dituzte. Banakako proiektua egiteko, hiru gai izango dituzte aukeran: euskara batua eta euskalkiak, emakumea eta kirola, eta utopia; eta sei formatu: lan literarioak, musikalak, historikoak, ikus-entzunezkoak, plastikoak eta sormen digitalekoak. Izena emateko eta lanak aurkezteko epea martxoaren 8an amaituko da, eta apirilaren 24an jakinaraziko dituzte **hautatuen**¹¹ izenak. Xehetasun guztiak, euskarabentura.eus webgunean.



DOINUELE EUSKARAZKO PLAZEN SAREA, URTE OSOAN HEDATUA



Urte osoko egitaraua aurkeztu du Doinuelek, euskara hutsezko kultur azokak biltzen dituen sareak. Iaz sortu zen eta, guztira, zortzi liburu eta disko azoka batzen ditu. Den-denak euskara hutsezkoak, esan bezala. Urtarrilean hasi zen Doinueleren urteko ibilia, Baztanen, nobela beltzari eskainitako (H)ilbeltzarekin. Hurrengo ekitaldia apirilaren 12tik 14ra izango da, Azkoitian: Geure Gelatik, emakumeek idatzitako liburuen azoka. Maiatzaren 24tik 26ra, Zarautzen izanen da **hitzordua**¹², Literaturia literatur azokan. Handik egun gutxira, ekainaren 1ean, Ziburuko liburu eta disko azoka egingo dute. Uda ostean, urriaren 5ean, Hernaniko liburu eta disko azoka iritsiko da. Hil beraren 11n eta 12an, haur eta gazte literatura izango da protagonista Sarako Ikusi Mikusi azokan. Hila amaitu gabe, 30ean, Galdakaok Sormene literatur azoka hartuko du. Amaitzeko, abenduaren 13tik 15era, Lazkaoko liburu eta disko azoka izango da urteko azken plaza.

Jordi VICH NAVARRO-UNSPASH

TXILLIDA JAIOTZAREN 100. URTEMUGA OSPAZUKO DA AURTEN

Joan den urtarrilaren 10ean, ehun urte bete ziren Eduardo Txillida (Donostia, 1924-2002) munduratu zela. Horregatik, artistaren jaiotzaren 100. urteurrena ospatuko da aurten, urte osoan antolatuko diren kultur ekitaldien bidez. Horietako bat, ekainaren 21ean, udako solstizioaren edizio berezia izango da, Txillida Lekun: Hernaniko Udalarekin eta inguruko kultur eta gizarte eragileekin elkarlanean, Jon Mayak zuzenduko du Txillidaren obratik eta haren pentsamendutik abiatutako sormen lana. Udazkenean, berriz, Arantxa Agirrearen *Ciento volando* dokumentala eskainiko da. Bestalde, Musikenek, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak, bi ibilbide eskultoriko-musikal diseinatu ditu mendeurrena ospatzeko: lehenengoa, maiatzean, Txillida Lekun; bigarrena, Donostian. Eta, urtea amaitzeko, eskultorearen omenezko obra bat estreinatuko da abenduan, Musikene Sinfonietaren eskutik.



BURU OSASUNA ETXEKO ANIMALIAK, BAKARRIK BIZI DIRENEN NARRIADURA KOGNITIBOAREN GALGA¹

Maskota bat edukitzea mesedegarria izan daiteke bakarrik bizi diren adinekoen buru osasunerako. Izan ere, haien **narriadura**² kognitiboa geldiaraz dezakete. Hala ondorioztatu du ikerketa batek, zortzi urtez jarraian Erresuma Batuko ia 8.000 lagunen datuak aztertu ostean. Gehienak, adinekoak, 2010ean 66 urte baitzituzten **batez beste**³. Bakarrik edo jendearekin bizi ote ziren, etxe animaliarik ba ote zuten... halako galderak egin zizkieten. Era berean, osasun eta buru osasun azterketak egin zizkieten bi urterik behin, besteak beste **hitz jario**⁴ eta memoria probak. Eraitzen arabera, bakarrik bizi zirenei jendearekin bizi zirenei baina azkarrago egin zien okerrera bai memoriak bai hitz jarioak. Maskotaren bat zutenek, ordea, bakarrik bizi ez zirenek bezala eutsi zieten gaitasun horiei. Etxeko animaliek adinekoen buru osasunean onurak eragiten dituztela lehendik ere **iradoki**⁵ izan dute beste zenbait ikerketak. **Haatik**⁶, honako honek hainbat urtez aztertu du **gainbehera**⁷ kognitiboa, eta jende kopuru handiari erreparatuta. Hori bai, ikerketak ez du kausa-ondorio loturarik frogatu.



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA




BERTSOLARITZA ARABAKO TXAPELKETA HASI DA

Urtarrilaren 28an hasi zen, Izarran eginiko saioan, 2024ko Arabako Bertsolari Txapelketa. Izarran hasitako bidea martxoaren 16an amaituko da, Gasteizko Principal Antzokian jokatu den finalean. Guztira, 18 bertsolarik hartuko dute parte, eta 6 iritsiko dira finalera. Aurretik, lau saio jokatu dituzte: bi **final-laurden**⁸ (Oionen eta Laudion) eta bi finalerdi (Aramaion eta Dulantzin). Aurten, gainera, urteurren biribila ospatuko du txapelketak. Izan ere, duela 40 urte antolatu zen lehen Arabako Bertsolari Txapelketa. Saioetara **bertaratzeaz**⁹ gain, aurtengoak emango duena ikusteko hainbat modu

izango dira: Arabako Bertsozale Elkartearen webgunea (www.bertsozale.eus/araba), www.bertsoa.eus bertsolaritza ataria, sare sozialak...

LEHIAKETA IRUÑEA, RUBIKEN KUBOAREN ZALEEN HIRIBURU

Uztailean, nazioarteko hitzordu garrantzitsua izango da Iruñean. Garrantzitsu bezain koloretsua, protagonista nagusia **aintzat hartuz**¹⁰ gero: Rubiken Kuboa. Izan ere, uztailaren 25etik 28ra, Rubik's WCA European Championship jokatu da Nafarroa Arenan. Hau da, Rubik Kuboaren Europako Txapelketa. Rubik Kuboaren Munduko Elkarteak (WCA, *World Cube Association*) bi urtean behin antolatzen du, eta **ibiltaria**¹¹ da. Datuen arabera, Europan orain arte jokatu den mota honetako txapelketarik handiena izango da: 57 herrialdetako 1.000 partaide lehiatuko dira txapelketako 17 modalitate ofizialekoren batean. Lehiakideen zerrenda berehala bete zen, izena emateko epea zabaldu eta ordu eta erdira. Parte hartzaileen artean, nazioarteko izarrak izango dira, hala nola Max Park estatubatuarra, Twan Dullemond herbeheretarra, Juliette Sébastien frantziarra... Hori bai, podiumera europarrak bakarrik igoko dira. Ikusle joan nahi duenak ere dagoeneko eros ditzake sarrerak. 3.200 lagunentzat izango da lekua, beraz, azkar ibili!



EUSKARA PAGO KIMUAK OPARI KORRIKARI ETA AEK-RI

Ikasturte honetan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots *Ez gara jaitsiko!* ikuskizunarekin dabilta batetik bestera, zuhaitzez zuhaitz eta adarrez adar. Haien helburua da lurra, basogintza, kultura eta hizkuntza zaintzearen eta babestearen garrantzia erakustea, inguruan horren gaineko kontzientzia sortu eta baso txikiak eratzeko. Ekitaldiaren amaieran, hortaz, hiru pailazoen opari polita ematen diete basogintzan diharduten elkarteei: landatzeko **pago**¹² txiki bat. Bada, AEKren zenbait euskaltegik ere jaso dute **kimu**¹³ hori: *“Iruditzen zaigu Korrikari eta AEKri eskaintzeak ere baduela koherentzia, logika eta zentzua:*

zuhaitzek eta basoek sustraitzeko¹⁴ lurra behar duten bezala, gure hizkuntzak eta kulturak ere halaxe behar dute; horregatik ematen diegu AEK-ko kideei, Korrika Kulturean landatzeko eta gure hizkuntza eta kultura sustraitzeko”. Beraz, AEKren izenean, eskerrik asko!



KOMUNIKAZIOA ARGIA SARIAK, BANATUAK



2024ko Argia sariek badituzte ja-beak. Izen **bereko**¹⁵ aldizkariak banatzen ditu sari ezagunak, eta aurren 35. aldia izan dute. Guztira, bost sari banatu zituzten urtarrilaren 26an Usurbilgo Atxega Jauregia jatetxean eginiko ekitaldian. Prentsa atalean, Kristina Berasain kazetaria saritu zuten, *Sahara, herri bat erresistentzian* (Elkar-Berria-Jakin, 2023) liburuagatik.

Ikus-entzunezkoen atalean, Josu Martinezen *Bizkarsoro* filma nagusi zuen. Entzunezkoen alorrean, Lanartea Euskararen Langile Profesionalen Elkarteak **ondu**¹⁶ eta Amagoia Gurrutxagak gidatutako *Ez gatz Paristik* kultur podcasta izan zen irabazlea. Interneti dagokionez, Gordegia egitasmoak (*gordegia.eus*) lortu zuen saria, hots, Donostiako Egia auzoko Artxibategi Grafikoa izateko xedez sortutako herri proiektuak. Azkenik, kanpaina onenaren saria Guggenheim Urdaibai Stop! herri mugimenduak eskuratu zuen.

1. **Galga:** freno (es), frein (fr).
2. **Narriadura:** deterioro (es), déclin (fr).
3. **Batez beste:** por término medio (es), en moyenne (fr).
4. **Hitz jario:** locuacidad (es), loquacité (fr).
5. **Iradoki:** sugerir (es), suggérer (fr).
6. **Haatik:** halere, dena den.
7. **Gainbehera:** declive (es), déclin (fr).
8. **Final-laurden:** cuartos de final (es), quart de finale (fr).
9. **Bertaratu:** joan, agertu.
10. **Aintzat hartu:** kontuan hartu, erreparatu.
11. **Ibiltari:** leku batetik bestera ibiltzen dena.
12. **Pago:** haya (es), hêtre (fr).
13. **Kimu:** brote (es), pousse (fr).
14. **Sustraitu:** echar raíces (es), prendre racine (fr).
15. **Bereko:** aurretik aipatutako hori.
16. **Ondu:** idatzi, prestatu.

SAGARDOA TXOTX DENBORALDIA MARTXAN DA

Dagoeneko dasta daiteke aurtengo sagardo berria Euskal Herriko sagardotegietan. Denboraldiari hasiera emateko, urtarrilaren 16an Sagardo Berriaren Eguna egin zuten Astigarragako Alorrenea sagardotegian, Euskal Sagardoa Jatorri Deiturak eta Sagardoaren Lurraldea **partzuergoak**¹ antolatuta.

ETS (En Tol Sarmiento) taldeko Iñigo Etxezarretak abiatu zuen txotx bolada, “*gure sagardo berria!*” oihukatuz. Ekitaldian jakinarazitako datuen arabera, aurten izango da zer dastatu: 2023ko sagar **uztarekin**² 12 milioi litro sagardo inguru **ekoitzi**³ dira Euskal Herrian. Euskal Sagardoa jatorri izenarekin, 4.000.000 litro egin dituzte Euskal Herriko 50 sagardotegik: Gipuzkoako 45ek, Bizkaiko 3k eta Arabako 2k. Nolako izango da aurtengo sagardoa? Aurkezpenean azaldu zutenez, “*oro har, iazkoarekin alderatuta, alkohol graduazio eta gorputz txikiagoak dituzte sagardoek, eta oso lurrintsuak*⁴ dira”. Halere, onena norberak probatzea izango da, ezta?



EMAKUMEAK ZIENTZIAN LANAZ HARAGO⁵ BIZITZA ERE BADAGOELA EZ AHAZTEKO

Otsailaren 8tik 16ra egingo da Emakumeak Zientzian ekimenaren 8. edizioa Bizkaian, Gipuzkoan eta, aurten **estreinakoz**⁶, Araban. Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna otsailaren 11n ospatzen da, eta egun horren bueltan antolatzen da ekimena, zientzia nesken kontua ere badela gogorarazteko eta zabaltzeko. 32 euskal erakundek antolatu dute aurtengo edizioa eta, astebetetz, 60 ekintza baino gehiago eskainiko dituzte hiru lurraldeetan. Jarduerak adin guztietarako izango dira: bisitak ikerketa zentroetara, tailerrak, mahai-inguruak... Urtero, helburu nagusi bat izaten du ekimenak, eta oraingoan zientzialarien bizimoduan ipini dute arreta. Hala, zientzialari eta teknologoek bizimodu beteko pertsonak izan nahi dutela nabarmenduko dute. Hots, ez direla beti lanean bizi diren eta bizimodu errealarri **uko**

egiten⁷ dioten pertsonak, baizik eta “*beharrak, grinak*⁸, *konpromisoak eta zaletasunak*” dituztenak. Jardueren programa osoa www.emakumeakzientzian.eus atarian dago eskuragarri.



1. **Partzuergo:** erakunde elkarte.
2. **Uzta:** cosecha (es), récolte (fr).
3. **Ekoitzi:** produzitu, ekoiztu, sortu.
4. **Lurrintsu:** usain handia duena.
5. **Harago:** más allá (es), au-delà (fr).
6. **Estreinakoz:** lehen aldiz, lehenbizikoz.
7. **Uko egin:** baztertu, alde batera utzi.
8. **Grina:** pasio.

Eskuragarri daude Korrikaren unitate didaktikoak

23. Korrikaren unitate didaktikoak webgunean dira dagoeneko, Euskal Herri osoko ikastetxeen esku. Korrikaren eta Ikastolen Elkartearen arteko **lankidetzan**¹, Orereta ikastolako Iñaki Zapirain irakasleak ondu du ikasmateriala, adinaren arabera, lau ataletan sailkatuta. Ikasgelako arbel digitalean proiektatzeko zein ikasleen ordenagailu **eramangarrietan**² erabiltzeko prestatuta egoteaz gain, irakasleentzako gida didaktikoak ere badaude, deskargatzeko moduan eta jarduerak aurrera eramateko argibide guztiakin. Halere, materiala nahi bezala erabil daiteke, atazak egiteko denbora edo adin tarteak egokituta. Jarduera ugari proposatzen dira: Goiatz Labandibarren ipuin batean oinarritutako *Ispilu harrogarri*; *Harro, herri, korri!* esku jolasa, Irundik Baionarako ibilbidea osatzeko; Iparraldeko lagunek azterketak euskaraz egiteko dituzten arazoez jabetzeko, dokumentalaren gaineko zineforuma egin eta Seaskaren Azterketak Euskaraz kolektiboari elkartasun gutunak bidaltzea; Myrian Perezek sortutako *Plazara dantzara!* koreografia; *Korrikahoot* jolasak, Korrikaren historia ezagutzeko; *Bingo musikatua*, aurreko edizioetako kantak abesteko... bai eta dagoeneko klasiko bihurtutako atazak ere, petoa eta lekukoa egitea, kasu.



1. **Lankidetzan**: beste batekin edo batzuekin batera lan egin.
2. **Eramangarri**: *portátil (es), portable (fr)*.
3. **Zeharkaldi**: *travesía (es), traversée (fr)*.

Gorde asteburu hauek naturaz euskaraz gozatzeko



AEKren Praktikatuk zerbitzuak aurtengo udaberriko antolatutako Kirola eta Natura txangoen datak argitaratu ditu. Apirilaren 21ean izango da lehena, Arabako Aiaraldean, Etxaurren eta Eskorrieta artean. Familientzat egokia da, ipuin kontalaria ere izango baita bertan. Hurrengoa Santurtziko Serantes mendian egingo den orientazio proba izango da, maiatzaren 5ean. Maiatzaren 26an, berriz, beste orientazio proba bat egongo da Gatican, familientzako modukoa, Butroeko gazteluaren inguruan. Eta, azkenik, ekainaren 16an, Pagomakurretik Itxinarainoko **zeharkaldia**³ (bertsolariek lagundutako ibilaldia). Horiek egun bateko txangoei dagokienez. Izan ere, urtero bezala, bi asteburu antolatu ditu Praktikatuk, Urtxintxa eskolarekin

batera, Urduñako Tertanga aterpetxean: maiatzaren 18-19an eta ekainaren 1-2an. Aurrerago zabalduko dira xehetasun gehiago, baina gorde datak zuen agendan! Informazio gehiago eta izena emateko epeak, praktikatu@aec.eus posta helbidean.


LARRE-GAIN
Sagardotegia

Tel. 943 55 58 46 • Mugik. 616 287 867
LARRE-GAIN BASERRIA • EREÑOZY – HERNANI





AMAIA ALDAI

PILOTARIA

Urte askoan futbolean aritu ostean, pilotan hasi zen eta goi mailan dabil ordutik Aldai (Dima, 2000).

Palmaresa adibide. Garaipen askoren artean, esaterako, iazko abenduan Emakume Master Cupeko Lau eta Erdiko Txapelketa irabazi zuen, hirugarrenez jarraian. Binakako VI. Bizkaia Txapelketako finala jokatu berri du, eta orain Binakako Master Laboral Kutxa txapelketan dabil buru-belarri. Irakasle ikasketak amaitzear da.

“Jada ez gara erreferente neskatoentzat bakarrik”

Lau eta erdikoa irabazi, Bizkaiko binakakoan finalista... Bolada¹ gozoan?

Bai. Azken urteetan, oso maila onean nabil, lorpen askorekin. Ez bakarrik finalak irabazten, baizik eta pilotaz disfrutatzen ere. Egoera hau guztia kudeatzen ikasi dut, eta une oso onean nago.

Lau eta erdiko txapela, hirugarrenez jarraian. Beste inork ez du lortu halakorik, horrek are pozgarriagoa egiten du?

Poz handia ematen du. Urtero-urtero lau eta erdiko txapelketan maila izatea ez du inork lortu, eta horrela jarraitzeko esperantza eta gogoia badauzkat. Mutilen kategorian Altunak eta pilotari handiek halakoak egiten dituzten moduan, hainbat urtez jarraian txapelak lortu, emakumeon artean ere hainbeste nabarmentzen den pilotari bat egotea oso pozgarria da.

Lau eta erdiko finaleko arerioak, Goiuri Zabaletak, 14 urte besterik ez du. Harrobia² badago eta gogor dator, ezta?

Bai, badaude pilotari batzuk adinez gazteak izan arren,

maila handia erakutsi dutenak, eta hori ere pozgarria da: emakumeen pilotak etorkizuna duela eta etorkizuna esku onetan uzten dugula ikustea.

Pilotari gazteak, ikusle asko, txapelketak ugaritzen... Emakumeen esku pilota hazten ari da?

Bai, bultzada handia eduki du. Oraindik lan handia dago egiteko, baina bide oso onetik goaz eta ezin gara kexatu. Txapelketa asko dauzkagu, maila handikoak, eta apurka-apurka bide honetatik jarraitzen badugu, gauza politak egin daitezke, eta emakumeon pilotak bizirik iraungo du.

Frontoiak beteta ikustera ohitzen ariko zarete.

Pixkanaka, bai. Ikusleengandik erantzun ona jasotzen ari gara eta asko pozten gaitu, emakumeon pilotan eta, oro har, emakumeon kirolean interesa bada-goela ikusten dugulako. Gainera, frontoiak betetzeaz gain, sekulako giroa sortzen da. Jada ez gara erreferente neskatoentzat bakarrik, hainbat mutil pilotari gazte ere erreferentetzat hartzen gaituzte, eta hori ere oso pozgarria da, gure lanak zerbaitetarako balio duela erakusten digulako, jendea motibatzeke eta lanean jarraitzeke indarra emateko.

Oso odolberoa³ zara. Bertute ala gabezia⁴?

Hasierako urteetan, gabeziatzat jotzen nuen. Odolberoa nintzen, erraz haserretzen nintzen, eta partidetan burua hotz izatea kostatu egiten zitzaidan. Landu ondoren, orain indargunea dela uste dut, laguntzen didala. Haserrealdiak kontrolatzen ere badakit. Agian une batzuetan ez, une oro menderatzea zaila delako, baina orain indargunea da. Aurkariari nire izaera erakusten diot, eta ez dudala amore ematen⁵.

Psikologoaren laguntza jaso duzula esan izan duzu. Gai tabua da oraindik ere?

Tabutzat hartzen dute askok. Jende asko ez da onartzera ausartzen, baina, nire ustetan, oso positiboa da. Ongi ez gaudenean, lehenengo pausoa onartzea da, eta hurrengoak, laguntza behar izanez gero, eskatzea. Garrantzitsua da. Kirolean, buruak asko eragiten du; nahiz eta teknikoki eta fisikoki oso ona izan, buruak ez badu laguntzen, kalte handia egin ahal dizu. Niri gertatu izan zait. Txikitatik sufritu izan dut: ez nekien frustrazioa onartzen eta kirola, disfrutatu beharrean, sufritu egiten nuen. Goi mailan egotea lortuta ere, ez nuen bate-

Di-da batean

Zerk alaitzen dizu eguna? Lagunek eta bikote-kideak.

Eta tristatu? Pertsona oso alaia naiz, beraz, egoera zailek.

Zerk eragiten dizu barrea? Edozerk. Ia egun osoa barrez ematen dut.

Eta negarra? Eztabaida edo liskarren batek, familiakoekin, batez ere.

Zerk haserreazten zaitu? Gezurrak.

Bizio bat? Kartetan jokatzeta.

Plazer txiki bat? Lagunekin egun pasa, bazkari bat...

Plazer handi bat? Eguna familiarekin pasatzea.

Zer izan nahi zenuen txikitari? Futbolariak gain, irakaslea, betidanik.

Frontoi bat: Bergarakoa.

Pilotari bat: Joseba Ezkurdia.

Arerio bat: Olatz Arrizabalaga.

re gozaten ez futbolean ez pilotan, eta, gauza ederrak lortu arren, niretzat sufrimendua izaten zen. Orain, helburuak lortu ala ez, disfrutatu egiten dut, pozik joaten naiz entrenatzera eta jokatzera, eta horrek etxeko egoera ere aldatzen du. Lehen, haserrealdi ugari neuzkan kirolagatik, ez nekielako frustrazioa kudeatzen, eta orain, aldiz, egoera guztiz bestelakoa da: lagunekin, etxean... hobeto nago, frustrazio hori ez dudalako haiekin ordaintzen. Tabua izateari utzi beharko lioke, oso lagun-garria baita.

Futboleko zerk balio izan dizu pilotarako?

Fisikoak. Futbolean urte askoan fisikoa landu dudanez, nik uste orain pilotari azkarra izatea ekarri didala, kantxan ongi mugitzea, hanka bizkor eta indartsuak edukitzea. ●

1. Bolada: *denboraldi, denbora tarte.*

2. Harrobi: *cantera (es), vivier (fr).*

3. Odolbero: *de sangre caliente (es), au sang chaud (fr).*

4. Gabezia: *defecto (es), défaut (fr).*

5. Amore eman: *rendirse (es), se rendre (fr).*

Atal honetan, izenen jatorrian sakontzeko ahalegina egiten dugu, eta ateak parez pare zabalik ditugu zuen proposamenak jasotzeko. Horrenbestez, zuen izenaren jatorria edota esanahia jakin nahi badituzue, eskatzea libre! Posta elektronikoa honetara idatzi besterik ez duzue egin behar: aizu@aek.eus. Bilatzen eta zuen eskura jartzen saiatuko gara, ezer agintzen ez badugu ere...

Jugatx

Neska izen honek *Jugatxi* du jatorri: Jugu (Zuia, Araba) herriko ermita, Murgiatik 2 kilometrora. Han dago Andre Mariaren egurrezko irudi erromanikoa. Izenaren baitan, bi hitz: *Jugu* eta *haitz* (mendebaldeko euskaraz, "(h)atx"); alegia, Juguko haitza (arroka).

Baseliza toki ederrean dago, Arrato mendilerroko Jugatxi mendian (774 m), Txikaran errekarren **trokatik**¹ eta Aiurdin mendatetik gertu, zuhaitz handien artean (hango haritz batek 6 metroko perimetroa du). Inguruan aisialdi gune zabala du.

Ermita XVII. mendeko obra dotorea da, 1970 aldean berriztatua, baina hango kofradia 1556tik ezagutzen da, eta Ama Birjinaren estatua XIII. mendekoa da; beraz, pentsa daiteke hango **gurtza**² zahar-zaharra dela.

Horren leku polita izanik, 2023ko ekainean *Jugatxi*, *basoaren argia* ikuskizuna antolatu zuen Zuiako Udalak, Nacho Arantegui artistaren eskutik. Ikusleek izugarri gozatu zuten naturaz eta diziplinarteko jaialdiaz (eskultura, musika, kantak, dantzak, argiak, mitologia...).

Horrez gain, urtero, iraileko bigarren igandean, erromeria egiten dute. Jendetza batzen da (2007an, 1.200 kofrade ziren); hortaz, ohitura ez dago galbidean. Garai batean, bertaratutakoek okela eta garbantuak eramaten zituzten, guztia lapiko handi batean sartu, egosi eta denen artean jateko, harmonian. Hori gogoan, orain mezaren, herri bazkariaren eta bolo partiden ostean, lasterketa egiten da ermitatik herrira eta bueltan, plater bat eramanda.

Mitoei dagokienez, kondairak dio behin otso zahar bat baselizara hurbildu zela jaki bila, eta han ahuntz



batzuk zebiltzala. Antxume bat aparte ikusita, otsoak ahoa zabaldu zuenean hura irensteko, tenpluko kanpaiek jo zuten (haizearen edo Andre Mariaren eraginez, batek daki). Orduan, piztia korrika joan zen, baina bidean basurde batekin **talka egin**³, eta hark, haserre, akabatu egin zuen.

Jugatx ez da oso izen erabilia: Espainian, 124 baino ez daude (gehienak, Bizkaian eta Gipuzkoan); batez beste, 25,9 urte dituzte. Etimologiari erreparatuta, adituen arabera, *Jugu* latinetik dator. Bi jatorri posible ditu: *iugum* (**uztarri**⁴) edo *jugum* (tontor). Lehenengoak adieraziko luke gune horretan norbaitek itegun bateko lursaila izango zuela (gaztelaniaz, *yugada*: idi pareak egun batean **goldatu**⁵ dezakeen azalera); bigarrena, aldiz, bat dator lekuaren itxurarekin, mendian baitago.

Gaur egun Jugu ere ahoskatzen da, j-z (erdal "jamón" lez); baina agiriak *lugu* (1257.ean) eta *Yugo* (1338) jaso zuten; hortaz, aspaldi **bestela**⁶ esaten zen (ikusitako dioen Euskaltzaindiak "j" letraren soinuaz).

Bitxikeria: Jugu herria, gaztelaniaz, Jugo da; bada, horixe zen Miguel Unamuno filosofoaren bigarren abizena.

- 1. Troka:** *amildegi*.
- 2. Gurtza:** *erlijiozko gorazarre*.
- 3. Talka egin:** *elkar jo*.
- 4. Uztarri:** *yugo (es), joug (fr)*.
- 5. Goldatu:** *lurra irauli*.
- 6. Bestela:** *beste modu batean*.



“Euskaldunon artean ere, kultur joera erdarazkoa da”

JUAN LUIS ZABALA ARTETXE (Azkoitia, 1963) idazlea itzultzailea eta zuzentzailea da ogibidez. Nobela, poema eta narrazio asko argitaratu ditu, baita sari garrantzitsuak irabazi ere. Joan den urrian *Dimisioa* (Susa) ipuin bilduma kaleratu zuen.

2040. urtetik aurrera kokatu dituzu ipuinok. Nolako da mundu hori?

Nahiko baketsu eta harmoniatsua. Badirudi gizateriaren gutxieneko premiak **aseta**¹ daudela: ez dago goseterik, medikuntza nahiko zabaldua dago mundu osoan eta berdintasuna dago bai herrialdeen bai herritarren artean, **erabatekoa**² ez bada ere. Gaur egungo arrisku eta ezintasun nagusiei erantzuten dien mundua da, baina triste eta ilun samarra aldi berean; izan ere, ordainetan, gizakiak Agintaritza Global Konputarizatuaren (AGK) esku utzi behar izan ditu agintea eta erabakitzeke ahalmena.

Zergatik jo duzu orain zientzia fikziora?

Neure **baitatik**³ ateratzea izan da motiboetako bat, idaztean nire joera naturala neure kezketan, beldurretan, ezinegonetan... oinarritzea delako. Erregistroa aldatu eta kanpora begirako zerbait egin nahi nuen, ez dakit lortu dudan. Bestalde, erabakia *N-634* narrazioaren ildotik ere etorri zen. Beharbada, lehenago idatzi nuen *Editoreari omenaldia*, baina ordurako *N-634* buruan bueltaka neukan, idatzi gabe, orain ikusten dugun auto **betekada**⁴ honi ezin zaiolako utsi. Horrek eraman ninduen hemen, 20-40 urtera mundua nolako izango den pentsatzera. AGKren ideia sortu zitzaidan eta hurrengo ipuinetan garapena eman nion.

Ihes egiteko gogoa ematen dizu mundu honek?

Munduaren martxa ikusita, denok dugu nolabaiteko beldurra. Eta, urteek aurrera egin ahala, beldurriago bihurtzen gara. Beti izan dut etorkizun globalari buruzko beldurra, eta, agian, gaur egun handitu egiten da: pandemia, gerrak... Beti dago desoreka mundu geopolitikoan, gero eta gutxiago ulertzen dugu gertatzen ari dena, nik, behintzat. Gero eta zailagoa da informazio iturri fidaga-

1. **Aseta:** *beteta*.
2. **Erabateko:** *osoa*.
3. **Baitatik:** *barnetik, barrutik*.
4. **Betekada:** *pilaketa*.
5. **Aldarri:** *proclama (es), proclamation (fr)*.
6. **Jantzi:** *jakintzu, prestakuntza handiko*.
7. **Irizpide:** *criterio (es), critère (fr)*.
8. **Irismen:** *alcance (es), portée (fr)*.
9. **Bikoizketa:** *doblaje (es), doublage (fr)*.
10. **Jabetu:** *jakin, ezagutu*.
11. **Estimatu:** *apreciar (es), apprécier (fr)*.



rri eta sinesgarriak izatea. Inkontzienteki, irtenbide bat bilatu dut liburuan, ia-ia ezinezkoa, utopikoegia. Baina hori sinesgarria ez bada, beste edozer sinesgarria izatea ere zaila da.

Editoreei eskaini diezu bildumako azken narrazioa. Harreman onaduz haiekin?

Hasieran, ustez liburua bukatuta daukazunean, editoreak beldur pixka bat eman dezake, medikuarenera edo azterketa bat egitera zoazenean bezala. Nik, funtsean, bi editore izan ditut: Gorka Arrese eta, orain, Leire Lopez Ziluaga, harreman ona izan dut biekin. Igual gaizki dago nik esatea, baina liburua nahiko bukatuta eramaten dutenetakoa naizela iruditzen zait. Gero, uste baino akats gehiago agertzen dira beti, konpondu beharreko gauza gehiago, baina nik ez dut trauma handirik izan horrekin, eta Arrese eta Lopez Ziluaga oso lagungarriak izan dira. Hobetzen lagundu diete liburuei, nik ere ikasi dut haiekin, eta ez dut galera sentsaziorik izan. Nire ustetan, editorearen irudia ez da balioesten. Orain, batzuetan entzuten dira autoedizioaren aldeko **aldarriak**⁵, baina editore literatur zale eta **jantziaren**⁶ ikuspuntua mesedegarria da beti.

Eta nola moldatzen zara literatur kritikak egiten dituztenekin?

Liburu honekin ez, baina badut kritika nahiko zorrotzak jaso izanaren esperientzia. Hasieran, amorrarazi egiten ninduten; denborarekin konturatu naizenez, ordea, kritikariak, irakurle jantziak izan arren, interpretazio propioa egitera kondenatuta daude, beste edozein irakurle bezala. Hortaz, alferrik da kritikaria oso ikasia izatea, literatura asko irakurtzea, **irizpide**⁷ garbiak edukitzea... Batzuentzat bertute dena akatsa da beste batzuentzat. Haien esanak, oinarri handiko iritziak izanik ere, oso erlatiboak dira, interpretazio pertsonalak. Kritika asko eta onak jaso nahi dituzu beti, baina ez diet aparteko garrantzirik ematen. Datorrena onartzen ohitu behar dugu, horrekin bizitzen; denborarekin, lortzen da.

“GERO ETA ZAILAGOA DA INFORMAZIO ITURRI FIDAGARRI ETA SINESGARRIAK IZATEA”

“EDITORE LITERATUR ZALE ETA JANTZIAREN IKUSPUNTUA MESEDEGARRIA DA BETI”

“KRITIKARIEN ESANAK, OINARRI HANDIKO IRITZIAK IZANIK ERE, INTERPRETAZIO PERTSONALAK DIRA”

“POLITIKARIEK EZ DUTE BILATZEN EUSKARAK BENETAN BESTELAKO INDARRA HARTZEA”

“OSO BAZTERREKO KULTURA DA GUREA, GEURE HERRIAN”

“CHILL MAFIAREN EUSKARA EZIN DUT JASAN”

Zergatik kostatzen zaigu hainbeste euskaldunoi euskaraz irakurtzea?

Gure egoera diglosikoagatik. Ni neu, eta ez dut uste pertsona arraroa naizenik alde horretatik, munduko herri euskaldunenetako batean jaio eta euskaraz hazi naiz; unibertsitatean euskaraz ikasi eta hala lan egin dut 30 urtez baino gehiagoz; euskarazko harremana dut familian eta lagun gehienekin. Baina oraindik ere errazagoa zait gaztelaniaz irakurtzea euskaraz baino! Pentsa euskarari hain loturik bizi ez den beste edozein euskalduni! Ikus-entzunezkoek indar handia dute, eta hortik datorrena erdaraz dago, gizarte erdaldunean bizi gara. Oso zaila da euskarak **irismen**⁸ handia izatea, baita euskaldunontzat ere, eta ez dago horri buruzko kezka politikorik. Gutxieneko batzuk lortu dira euskararako, baina eustea dute xede. Ez euskarak benetan bestelako indarra hartzea, politikariek ez dute horren gaineko kezkarik.

Nondik etor daiteke konponbidea?

Ni **bikoizketaren**⁹ aldekoa naiz, baina bikoizketek fama txarra dute oraindik. Aspaldi esan zuten ETBkoek bikoizketa ez duela inork ikusten, ez

delako naturala. Bada, egin natural! Batua ere ez da naturala, ez baduzu natural egiten; liburuetako euskara ez da inoiz naturala izango, filmetakoa ere ez da naturala. John Wayne gaztelaniaz hitz egiten naturala iruditzen zaigu, mila aldiz ikusi dugulako, baina ez baduzu inoiz euskaraz ikusten...

Euskal sortzaile asko eta euskarazko ekoizpen handia dugu. Ez da itxaropentsua?

Idazten hasi nintzenean, kultura arloan nenbilen lanean *Euskaldunon Egunkaria*-n. Orduan, oso erraza zen literaturan eta musikan egiten zen guztiaz **jabetzea**¹⁰, eta zinemarik ez zegoen ia. Gero, leherketa ikaragarria gertatu zen, batez ere 90eko hamarkadaren amaieran eta 2.000 urtetik aurrera. Hori **estimatu**¹¹ egin behar da. Arazoa da harrera zenbaterainokoa den. Batzuek esan

izan didate euskarazko liburuek uste dena baino harrera hobe eta dutela, askotan egiten diren negarrek erakusten dutena baino gehiago irakurtzen dela euskaraz. Baina telebista edo liburu dendetako erakusleihoak ikusita, gurea oso bazterreko kultura dela konturatzen zara, geure herrian bertan. Hori ez da oso bihotz altxagarria, pozteko motiboak egon arren.

etik, ondo egongo litzateke, baina, bestetik, balioa galduko luke. Nik txikitan ikasi nuen hizkuntza galdu egin da. Euskara bizirik badago ere, nik ikasitako hura ia erabat galdua dago. Txip batekin itzultzaile automatikoak eman dezakeen hizkuntza hori ikasiko genuke. Eta, seguru asko, ingelesa ikasiko genuke errazago, tresneria garatuago egongo litzatekeelako.



Zure ustez hizkuntzaren galera dena eboluzio logikoa da zerbaiten iritzi...

Txikitan ezagutu dugun hizkera adierazgarri eta **txinpartatsu**² hori galtzera kondenatua egoteak ez du esan nahi euskara beste esparru batzuetara eta beste molde batzuetan eraman behar ez denik. Euskara batuak galera ekarri zion euskarari, eta askok salatu zuten, baina beharrezkoa zen. Ni batuaren alde nago, hala agertu naiz beti, baita ahoko batuaren alde ere. Euskara eskolara zabaldu nahi bada, literaturara, unibertsitatera... gaurko munduan eta erdarekin harreman ezinbestekoan, derrigor galduko du. Min ematen du, baina eboluzioa onartu beharra dago, nahitaezkoa da. Noraino, baina? Nik ezin dut jasan Chill Mafiaren euskara. Ulertzen dut batzuek jasatea eta euskarari sekulako mesedea egiten diola esatea. Baliteke, ez dakit, baina onartu beharko dugu noizbait *“ikusitako zaitut”*-en ordez *“ikusitako dizut”* esatea? Ergatiboa alde batera utzi beharko dugu? Ni horraino ez naiz iristen, ez dakit etorkizunean iritsiko garen.

Kontsumitzaileak falta, orduan?

Ekoizpen aldetik, euskal kulturaren badago kantitate eta kalitatea, sorkuntza genero eta adierazpide guztietara iristen da, denetik egiten da eta, gainera, oso ondo. Bizi garen gizartean, ordea, ugaritasun hori oso **urria**¹ da, gutxitxo ikusten da. Kaleko errealitateak erakusten digu bagaudela, nolabait esateko, talde txiki batean. Konponbidea zaila da gizarte diglosiko honetan: batetik, denok ez dakigu euskaraz; bestetik, euskaldunon artean ere, kultur joera erdarazkoa da, eskaintza zabalagoa eta eskuragarriagoa delako. Euskaldunon artean, alfabetizazio maila askoz ere handiagoa da erdaraz euskaraz baino. Euskaraz bizi diren euskaldun askok, ondo hitz egin arren, errazago jotzen dute erdarara kultur arloan.

Mende honen bigarren erdian egongo ote da euskara ikasteko txipen bat?

Euskara irakasle izan nintzen aspaldi. Gogoan dut ikasle batek horretarako pilula bat eskatzen zuela. Ba-

luzioa onartu beharra dago, nahitaezkoa da. Noraino, baina? Nik ezin dut jasan Chill Mafiaren euskara. Ulertzen dut batzuek jasatea eta euskarari sekulako mesedea egiten diola esatea. Baliteke, ez dakit, baina onartu beharko dugu noizbait *“ikusitako zaitut”*-en ordez *“ikusitako dizut”* esatea? Ergatiboa alde batera utzi beharko dugu? Ni horraino ez naiz iristen, ez dakit etorkizunean iritsiko garen.

Bi arrazoi euskara ikasteko?

Jaiotzatiko euskaldunon kasuan, **atxikimendu**³ afektiboa dago, gure izaeraren parte da. Nork bere sudurra maite duen bezala, nahiz eta behar baino luzeagoa, motzagoa edo itsusiagoa izan, gure hizkuntza gurea delako maite dugu, etxean eta txikitako lagunaren artean ikasi dugulako. Beste motibo bat euskaldunonganako empatia izan daiteke. Empatia zapalkuntza bizi izan duen eta oraindik ere, bere lurraldean, oso baztertua dagoen hizkuntzarekiko, zabalkunderako eta iraupenerako zailtasunak dituen hizkuntzarekiko. Eta euskarafoben astakerien aurka erreakzionatzeko! ●

KOLKOTIK

1. **Urri:** txiki, eskas, pobre..
2. **Txinpartatsu:** chispeante (es), pétillant (fr).
3. **Atxikimendu:** adhesión (es), adhésión (fr).
4. **Antxintxika:** korrika, lasterka.
5. **Herabe:** lotsati.



Nola ikusten duzu zure burua 20 urte barru?

Zahartuta, bizi banaiz, kar-kar!

Idazlea, itzultzailea... Letra gizona ez bazina, zer?

Kamioi txoferra.

Idazle bat?

Franz Kafka.

Zer liburu oparituko zenioke 10 urteko ume bati?

Mariasun Landaren *Krokodiloa ohe azpian*.

Eta zure adineko norbaiti?

Mikel Alvarezen *Euskalia*.

Sailkatuko ote da Real aurtan Europarako?

UEFA Europa Conference League-rako sailkatuko da.

Maite duzun hitz bat?

Ataria.

Irakurtzeko lekurik onena?

Etxeko sofa.

Idazle izateak daukan gauza on bat?

Gaizki ikusia dago hau esatea, baina terapia modu bat dela.

Eta txarra?

Zeure buruari buruzko irudi okerra ematen duzula publikoki.

Zer ez da falta inoiz zure etxeko hozkailuan?

Arrautzak.

Zer moduz egiten duzu sukaldean?

Gaizki.

Zer ikusten duzu ispiluaren aurrean jartzen zarenean?

Dotoreagoa izan zitekeen pertsona bat.

Korrika datorren hilean, non egingo duzu antxintxika?

Azken aldietan, auzoan egin izan dut, kilometro pare bat edo.

Nor da heroia zuretzat?

Arazo larriak dituzten seme-alaben gurasoak.

Zerk galarazten dizu loa?

Azkenaldian, jendaurreko agerpenek.

Bizitzako plazer txiki bat?

Bizikletan ibiliz lekuak ezagutzea.

Larunbat gauerako planik onena?

Etxean telebista ikustea familiarekin; ziurrenik, gaztelaniaz.

Bi hitzetan, nolakoa da Juan Luis Zabala?

Herabea⁵ eta beldurtia.

Stephen King



Duela 50 urte, 1974ko apirilean, 26 urteko *friki* batek bere lehendabiziko eleberria argitaratu zuen: Stephen King izena zuen idazleak, eta autokarabana batean bizitzen Tabitha bikotekidearekin.

Inork ez zuen ezagutzen,

Carrie nobela agertu arte. Hortik aurrera,

beste hainbat

liburu argitaratu

zituen, batez ere

beldurrezkoak,

eta bere abizena

nolabait

“**berretsi**” zuen:

King (erregea),

arrakastatsua eta

esanguratsua, milioika

kopia saldu eta gero.

Kingen lau maisulan

bildu ditugu, haren

debuta oroitzeko.

1. Berretsi: *baieztatu, konfirmatu.*

2. Baldar: *patoso, -a (es), maladroït, -e (fr).*

3. Adarra jo: *burla egin, trufa egin, iseka egin.*

4. Distira: *resplandor (es), splendeur (fr).*

5. Zeharo: *guztiz, erabat.*

6. Emankor: *productivo, -a (es), productif, -ive (fr).*

7. Eragotzi: *impedir (es), empêcher (fr).*



CARRIE

Hasiera beti izaten da ahaztezina, eta Stephen Kingena ikaragarria izan zen. Carrie White neska bakartia eta lotsatia da, **baldarra**² eta baztertua. Izan ere, inork ez dio kasurik egiten, **adarra jotzeko**³ salbu. Etxean ere ez darama bizimodu erraza, ama erlijio fanatikoa delako eta alabaren ohitura "modernoe-kin" obsesionatua dagoelako. Halere, neskak badu trebetasun bat: telekinesia. Hau da, edozein objektu mugiaraz dezake, berak nahi bezala, soilik garunaren indarrarekin. Ikaskideek azken txantxa egiten diotenean, Carrieren amorruek sekulako hondamena eragingo du. Eleberrian oinarrituta, Brian De Palma zuzendariak *Carrie* pelikula egin zuen, Sissy Spacekekin eta John Travoltarekin, besteak beste.

THE SHINING

"*Danny! Danny!*", denok oroitzen ditugu Jack Nicholsonen oihuak, eskuetan aizkora bat duela semearen atzetik doan bitartean. Jack Torrance idazleak Overlook Hotela zaindu behar du neguan, guztiz hutsik dagoena, baina erotu egingo da eta bere familia hil nahi izango du. Haatik, Danny umeak "**distira**"⁴ dauka ("*the shining*" ingelesez): gauzak eta gertaerak lehenago eta bizkorrago ikus ditzake. Adibidez, aitaren zoramena. Ondorioz, ihes egingo du. Stanley Kubricken pelikula ezaguna da, noski, baina Stephen Kingen eleberrian oinarrituta dago. Zoritxarrez, idazlea ez zen guztiz ados egon zinemarako bertsioarekin.



IT

Aditu askoren ustez, Stephen Kingen maisulana da. Eleberri erraldoi honetan, Erregearen filosofia argi eta garbi islatzen da: gaizkia eta krudeltasuna edonon ager daitezke. *It* oso liburu luzea da, 1.200 orrialde ingurukoa, eta **zeharo**⁵ beldurgarria. Bi une bereizten ditu: protagonistak berberak dira, lehenik gazteak direnean eta, ondoren, heldu bihurtutakoan. Bigarren horretan, berriz elkartuko dira denboraldi batez elkar ikusi gabe egon ostean (beldurratik bere burua hil zuen bat izan ezik), iraganeko "mamuei" edo amesgaiztoei aurre egiteko. Esate baterako, Pennywise pailazoari, agian Stephen Kingen pertsonaiarik ezagunenari.

22/11/1963

Ikaragarri **emankorra**⁶ izan da Stephen King, ia urtero eleberri, bilduma edo saiakera bat argitaratu izan duelako. Urtetik urtera, kalitatea apur bat apaldu da, baina azken hamarkadetako interesgarrietakoa, zalantzarik gabe, liburu "distopiko" hau izan da. Tipo batek iraganera joatea lortuko du, John Fitzgerald Kennedy AEBetako presidentearen kontrako atentatua **eragozteko**⁷, 1963ko azaroaren 22an, Dallasen. Kingek beste mundu batera eramango gaitu, modu nostalgikoan, beharbada. Hala ere, tipoa gaur egunera itzultzen denean, mundu berria ez da aurrekoa bezalakoa izango... Komenigarria izan al zen atentatua eragoztekoa?



Gidabaimena 17 urterekin, bai ala ez?

Gidatu ahal izateko adina 18 urtetik 17 urtera jaits daiteke aurki. Hala adostu zuten iazko abenduan Europar Batasuneko garraio ministroek. Hori bai, gidariak 24 urtetik gorako laguntzaile bat izan beharko du alboan, gutxienez 5 urteko esperientzia duena gidatzen. Ipar Euskal Herrian neurria indarrean da jada, eta, Espainiako Gobernuak berriki jakinarazi duena betez gero, Hegoaldean ere ezarriko da. Egokia iruditzen zaizu?

LAUTADAKO AEK EUSKALTEGIKO B2 MAILAKO TALDEA

17 urterekin gidabaimena ateratzea ondo iruditzen zait. Izan ere, azkenean, ez dago alde handirik 18 eta 17 urtekoen artean. Gainera, gidariak laguntzailea izan beharko du, eta bere esperientziarekin lagundu dezake.

RAKEL

Ondo iruditzen zait. Izan ere, 17 eta 18 urtekoen artean ez dago denbora tarte handirik, eta orain proba teorikoa 17 urterekin atera ahal duzu.

EDER

17 urterekin, gidabaimena ez da beharrezkoa eguneroko bizitza egiteko. Gainera, garraio publikoa erabil dezaten hezten saiatzen gara, bai herritik hirira joateko, bai hirigunean ibiltzeko. Negozioaz ari gara?

IDOIA

Printzipioz, ondo iruditzen zait, ez dago desberdintasun handirik 17 eta 18 urtekoen artean. Modu horretan, gidatzen praktikatzea aukera ona litzateke; hala ere, gidari laguntzaile bat aurkitzea zailagoa izango da. Nor izango da gazteari lagunduko dion ausarta?

ARANTZA

Ez zait ideia ona iruditzen. Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu 17 urteko gazteak ikasten ari direla. Azterketaren estresa eta eskola gehituz gero, osasun mentalean eragina izan dezake, gauza asko egiten dituzte eta.

EDURNE

Nire ustez, gazte bat 17 urterekin gidatzeko prestatuta egon daiteke. Autoeskoletan gidatzeko baimena adin horretan ateratzea izango litzateke hoberena.

KIKE

Ez dut erantzun argirik. Nolanahi ere, ez dut uste gazte askok gidabaimena aterako lukeenik; izan ere, gazteak adin horietan, normalean, hamaika kontutan ibiltzen dira.

ADRIAN



Ez da hain fazila

Bidali zuen zalantzak, guztiok aberastuko gara eta.
AIZU! • Ez da hain fazila
Iztueta kalea 3, behea. 20001 DONOSTIA
Posta elektronikoa: euskaratu@aek.eus

Ale honetan hainbat kontu argitzen jarraituko dugu.
(* Asteriskodunak gaizki daude, jakina.

galde **d**ebalde?



Zuengana jo dugu lagunen artean pil-pilean dugun eztabaida bati amaiera ematen lagun diezaguzuen, arren, gu ez baikara gai argitzeko. Ondoko forma hau nahiko hedatuta dago, baina zuzena da?: *Nago ia mundu guztiak Gabonak gorroto dituela / Daude jaki guztiak guk prestatuko ditugula*, etab. Batzuok uste dugu, asko erabiliagatik ere, gaizki daudela, “-lakoan” falta dutelako eta ordena ere ez delako zuzena. Gure ustez, honela behar lukete: *la mundu guztiak Gabonak gorroto dituelakoan nago / Jaki guztiak guk prestatuko ditugulakoan daude*.

Galdera interesgarria, zinez. Eta, bide batez, mila-mila esker zuen konfiantzarengatik.

Erantzuna, baina, zuen aurreikuspenaren kontra doa: egitura hori (**nago + la**) zuzena da. Halaxe adierazi du Euskaltzaindiak behin baino gehiagotan. Segidan laburtuko ditugu gure akademiaren postuluak:

Zuzena da **nago (...)** **-(e)la** erabiltzea, eta ordena horretan, posible baita elementuren bat edo zatiren bat falta izatea zenbait esalditan; hala gertatzen da, esaterako, egon (lehen pertsonan bet) eta eduki aditzekin. Adibideak ez dira falta gure tradizioan:

- *Ez dela nago (...) berba hori gehiago esango* (J.A. Mogel, 1740-1804).
- *Nago (...) adiskideek ez dutela erratearen beharrik* (Hiriart-Urruty, 1859-1915).


Horietan, ulertzen da azpian *ustean egon* edo horrelako zerbait dagoela, baina esan/idatzi barik geratzen da.

Bestalde, bada **<nago (...)** **-(e)n>** egitura ere, gehienbat Iparraldeko idazleek eta nork bere buruari eginiko galderetan erabilia: *Nago hori ez ote den ama / Nago begi hauek behin betikoz nolaz ez ziren hetsi han.*



Hortaz, zuen galderari erreparatuta, ondo dago esatea *Nago ia mundu guztiak Gabonak gorroto dituela*, baita *la mundu guztiak Gabonak gorroto dituelakoan nago* ere, jakina (hor, esaldiaren luzera hartu beharko genuke kontuan, erabakitzeko ea merezi duen aditza aurreratzea, atzerakargarik gerta ez dadin). Aitzitik, ezin ontzat eman *Daude jaki guztiak guk prestatuko ditugula*, hirugarren pertsonakoa delako; hori bera emateko, *Jaki guztiak guk prestatuko ditugulakoan daude*, edo, aditza aurreratuta, *(Haiek) Badaude jaki guztiak guk prestatuko ditugulakoan*.

Amaitzeko, bitxikeria bi: "Nago" Okinawa irlako (Japonia) hiri nagusia da (61.659 biztanle zituen 2012an), eta Beningo etnia batek "nagó" du izena. Nago kontu horiek gustatuko zaizkizuela, irakurle maiteok.



ARROPA

4 HIZKI

BATA
BOTA
GONA
JAKA
PETO
SLIP

5 HIZKI

BOTIN
BRUSA
PANTI
PRAKA
TANGA
TRAJE

6 HIZKI

BAKERO
BEROKI
BIKINI
GALTZA
JERTSE
KULERO
TXAPIN
ZAPATA

7 HIZKI

KAMISOI
KAPUSAI
MOKASIN
SOINEKO
TXAKETA
TXALEKO
TXANDAL

8 HIZKI

ELASTIKO
ESPARTIN
KAMISETA
KATIUSKA
MINIGONA
OINETAKO
SANDALIA

9 HIZKI

ALKANDORA
ESKALAPOI
GABARDINA
TXANKLETA

10 HIZKI

TIRANTEDUN

11 HIZKI


BULARRETAKO

13 HIZKI

GALTZONTZILLO

Hiztegia erotu egin zaigu, lagunduko al diguzu hitzak dagozkien definizioekin lotzen?


- | | |
|----------|--|
| OZTOPO | 1. Herria zaintzen duen udal langile. |
| KALEKUME | 2. Oinezkooi gordetzen zaigun kalearen zati, ertzekoa. |
| JOSTUN | 3. Zerbait egitea zailtzen edo eragozten duen gauza. |
| ESPALOI | 4. Jateko landareak eskuratzeko lantzen dugun lur zati. |
| PROBESTU | 5. Inauterien ostean hasten den 40 eguneko aldi kristau. |
| GINGA | 6. Ezergatik larritzen ez den pertsonak daukan jarrera. |
| GARIZUMA | 7. Baserrikoa ez den pertsona. |
| PATXADA | 8. Tarta gainean jartzeko balio duen gerezi mota. |
| BARATZE | 9. Batez ere udan ziztatzen gaituen intsektu txiki. |
| ELTXO | 10. Jantziak egiten edo konpontzen dituen pertsona. |



atsotitza O satu



Irudi bakoitzaren izena dagokion lekuan jarrita, atsotitz bat irakurriko duzu.



hitz katea



Lerro batetik bestera hizki bakar bat aldatuta, lehen hitzetik seigarrenera helduko zara. Errazago iristeko, laugarren lerroko hitzaren "definizioa" duzu.


4. 1.000

1	B	I	K	O
2				
3				
4				
5				
6	P	A	L	A

Sinonimoak ezkondu











Sinonimoak ezkondu, ea asmatzen duzun nor den alargun bakarra.

KORRIKA	SAMUR
BERRIKETA	SENDO
EMARO	PIXA
GAIZKI	POLIKI
JADANIK	SOLASALDI
SAMAR	ANTXINTXIKA
MARDUL	DAGOENeko
GERNU	TXARTO
BIGUN	



Egia ala gezurra

Aldizkaria irakurri ondoren, esaguzu honako esaldiak egia ala gezurra diren.

1. Juan Luis Zabalak baikortasun handiz ikusten du etorkizuna. 
2. Juan Luis Zabalak ez luke onartuko ergatiboa euskaratik desagertzea. 
3. Eva Forest Liburutopia Gasteizko Alde Zaharreko liburutegi bakarra da. 
4. Eva Forest Liburutopia ez da neutroa izateko jaio. 
5. Azterketak Euskaraz kolektiboa da Lander Garroren *Oihaletxea* dokumentaleko protagonista. 
6. Hemezortzi lagun testigantzak jaso ditu *Oihaletxea* filmak. 
7. Altsasuko kintoek zortzikoa dantzatzen dute. 
8. Altsasuko kintoen jaia Agate Deunaren egunean ospatzen da. 
9. Stephen Kingek argitaratu zuen lehen eleberria *Carrie* izan zen. 
10. Kingek idatzitakoen artean, *Pennywise* da libururik salduena. 

horoskopoa



ARIES martxoak 21-apirilak 20

Erne! "Ni egin dut" esaten duzun bakoitzean, euskaltzain bat familia bazkarirako prestatutako arrain zopa mindu zaiola konturatzen da zerbitzatzen ari den unean.

TAURUS apirilak 21-maiatzak 20

Asko haserretu egingo zaizkit, baina hauxe da egia egiazkoa: euskara ez da euskaldun egiten gaituena, *wind stopper*-a eta trekking oinetakoak baizik.

GEMINI maiatzak 21-ekainak 20

Horoskopoak benetan sinesgarriak direla pentsatzea telebistako perfume iragarkiak zinez sofistikuak direla pentsatzea bezala da.

CANCER ekainak 21-uztailak 20

Badago seme-alaba eder eta politik dituela uste duen jendea. Tira... izan badago, baita astrologia sinesgarria dela uste duen jendea ere...

LEO uztailak 21-abuztuak 20

Gizakion gorozkiak hegazkinetarako erregai bihurtu ditu zientzialari talde batek. Gizaki askoren ideia kaka-tsuekin antzekoa lortuko balute, hori bai aurrerabidea!

VIRGO abuztuak 21-irailak 20

Euskaraz hitz egitean hitzen ordena gaizki antolatzen duzulako ez lotsatu. Horrela maisu Yodak ere du egiten hitz, eta miresten mundu guztiak du.

LIBRA irailak 21-urriak 20

Munduak maitasun gehiago behar duela diote zenbaitek. Alferrikako amets utopiko txatxuak! Munduak kabroi gutxiago behar du, ez besterik.

SCORPIUS urriak 21-azaroak 20

Klima aldaketak ez du atzerabuelarik: inoiz ez dugu berriz ikusiko ETBko kazetaririk A-15 autobidean, Pagozelaiko atsedeen gunean, elurra ari duela esanez.

SAGITARIUS azaroak 21-abenduak 20

Kontuz beti jator agertzen diren horiekin. Gogoratu, bestela, animaliei buruzko dokumentalak: sugerik koloretsuenak izan ohi dira pozoitsuenak.

CAPRICORNIUS abenduak 21-urtarrilak 20

Hizketan "Gure garaian..." esanez hasten direnekin, kontuz: normalean, *zaharruno* marmarti hutsak dira, eta Oteizaren Arantzazuko apostoluak baino zurrunagoak.

AQUARIUS urtarrilak 21-otsailak 20

Ez fio bizkarrean zapladak ematen dizkizutenekin, ez baitira estimatzen zaituztela adierazteko keinuak. Bizkarrean labankada non sartu kalkulatzeko ari dira.

PISCES otsailak 21-martxoak 20

Dudarik ez: ordua esateko ere "derradan, bidenabar", "erran nahi baita" eta antzekoak erabiltzen dituztenengandik, izurri bubonikotik bezala, urrutiratu berehala!

logika jokia

1+1=2

Bost kirolari hauek igeriketa lehiaketa batean hartu dute parte. Asmatu bakoitzaren izen-abizenak, adina eta zein estilotan nagusitu den.

IZENA	ABIZENA	ADINA	ESTILOA

- 20, 22, 25, 28 eta 30 urte dituzte bost kirolariek.
- Aizpuru oso ona da bular igeriketan; bizkar estiloen, berriz, Estitxu da onena.
- Oskar Ane Gartzia baino hiru urte zaharragoa da. Bietako batek bular igeriketan irabazi du, eta besteak crawl estiloen.
- Arregi abizena duena Estitxu baino bi urte gazteagoa da. Ez bata ez besteak ez dute jardun ez

- igeriketa sinkronizatuan ez bular igeriketan.
- Tximeleta estiloen aritzen dena, Inhar, da gazteena.
- Iribarrek irabazi du estilo sinkronizatuan; Aizpuruk baino bi urte gehiago ditu.
- Igerilarietako batek Beitia du abizena.
- Naikek bular igeriketan aritzen denak baino bi urte gehiago ditu.

hamazazpi baietz!



1. Non dago Hezetasuna izeneko auzoa?

- a) Artikutzan
- b) Algortan
- c) Hoztan

2. Euskaraz, nola da puzkerraren soinua?

- a) Parratz
- b) Turrut
- c) Euskaldunok ez dugu puzkerrik botatzen

3. Hiru herrialde hauetako zein ez du zeharkatzen ekuatoreak?

- a) Kolonbia
- b) Gabon
- c) Ekuatore Ginea

4. Aurtengo Gasteizko jaietan, nork beteko du Zeledon pertsonaiaren rola?

- a) Iñaki Kerejazuk
- b) Gorka Ortiz de Urbinak
- c) Lur Lopez de Arkautek

5) Zein hizkuntzatan du jatorria robot hitzak?

- a) Ingelesean
- b) Txekieran
- c) Errusieran

6) Nork idatzi du *Maitasun kapitala* (Elkar, 2023) nobela?

- a) Katixa Agirrek
- b) Goiatz Labandibarrek
- c) Karmele Jaiok

7. Zein hiriburu zeharkatuko du 24. Korrikak martxoaren 16an?

- a) Donibane Garazi
- b) Iruñea
- c) Maule

8. Nor da Eusko Ikaskuntzaren lehendakaria?

- a) Ana Urkiza
- b) Miren Azkarate
- c) Gurutze Ezkurdia

9. Noiz hasiko da, aurten, Txinako urte berria?

- a) Otsailaren 10ean
- b) Otsailaren 29an
- c) Martxoaren 1ean

10. Joseba Sarrionandiak idatzi eta Ruper Ordorikak kantu bilakaturako poesiaren arabera, nor hil zen "galeretan, zerua itsaso zikin bat" zela esanez?

- a) Martin Larralde *Bordaxuri*
- b) Luis IV.a Beaumontekoa, Leringo kondea
- c) Bernard Goienetxe *Matalaz*

11. Norbait lur jota badago, zer gertatzen zaio?

- a) Erori egin dela eta ezin dela jaiki
- b) Abailduta dagoela, oso atsekabetuta
- c) Hil egin dela eta lurperatuta dagoela

12. Non itsasoratzen da Estepona ibaia?

- a) Esteponan (Andaluzia, Espainia)
- b) Bakion (Bizkaia)
- c) Laredon (Kantabria, Espainia)

13. Zein distantziaraino entzun daiteke astoaren arrantza, haizerik ez bada?

- a) Kilometro bateraino
- b) 1.500/1.800 metroraino
- c) 3 kilometroraino

14. Nola amaitzen da esaera zaharra? *Azkar eta ondo...*

- a) ... *usoak hegan*
- b) ... *zezenak eskatu*
- c) ... *soilik tranpa eta tongo*

15. Zein maiztasunekin jokatzen da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa?

- a) Urtero
- b) Bi urtean behin
- c) Lau urtean behin

16. Zer da UZEI?

- a) Urteko Ziklo Ekonomikoen Indizea
- b) Ur Zonaldeen Euskal Institutua
- c) Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea

17. Nola esaten zaie zuhaitzen eraztunen hazkundea ikertuz klima aztertzen duten zientzialariei?

- a) Meteoforestologoak
- b) Xiloklimatologoak
- c) Dendroklimatologoak





	* Deitura		Londresko auzoa		Kristal, beira		
	* Izena		Trebe, abil		Emakume izena		
	Altzari mota						
	Hegazkina, airekoa						
	Pasabideak		Nafarroako herrixka	Bokal errepikatua		Ez eme	
	Marokoko hiria		Ardiaren ar	Egur zati erdi errea		Inurrien bizileku	
					Iridioa		Ezkonanaiak
					Nafarroako udalerria		
Ahaltsuak							
Nahasi, nahaspilatu							
						Bokal biribila	
						Euskal aurrizkia	
Ipar EHko ordu				Ugaztun karraskari			
Ibaiko igarobide				Indioa			
			Txirrin hotsaren onom.				
			Arrazoi				
Bokal mehea		Istinga					
Emakume izena		Hosto					
				Kanpo, landa		Tona, labur-labur	
				Begirada		Joan hadi!	
Zoro				Sufrea	Gure uni-bertsitatea		
Su lama				Zelula hiltzailak	Nederland, labur-labur		
			Zer tokitakoa?				
			Kontso-nantea				
Suak guztiz erreak							

* Zinema zuzendari gipuzkoarra

lauki lerroa



Definizioak bete ondoren, idatzi hizki bakoitza dagokion laukitxoan eta Harkaitz Canoren *Ulu egiteko bolondres bila* (Susa, 2023) liburuko *Heroia* poemaren hasiera irakurriko duzu.

1	2	3	4	5		6	7	8		9	10
11	12	13	14	15		16	17	18	19	20	21
	22	23	24	25	26		27	28	29	30	31
	32	33	34	35	36		37	38	39	40	41
	42	43	44	45	46	47	48	49			

1. Pertsona batek gauzak erraz ulertzeko duen ahalmen.

$\overline{47}$ $\overline{35}$ $\overline{17}$ $\overline{39}$ $\overline{30}$ $\overline{15}$ $\overline{29}$ $\overline{23}$ $\overline{40}$

2. Alferra denaren ezaugarri.

$\overline{21}$ $\overline{7}$ $\overline{48}$ $\overline{18}$ $\overline{36}$ $\overline{13}$ $\overline{11}$ $\overline{32}$ $\overline{38}$

3. Besoa eta giza enborra lotzen dituen gorputz atal.

$\overline{4}$ $\overline{34}$ $\overline{12}$ $\overline{27}$ $\overline{2}$ $\overline{42}$ $\overline{22}$ $\overline{26}$

4. Txiro bihurtu.

$\overline{1}$ $\overline{49}$ $\overline{37}$ $\overline{14}$ $\overline{24}$ $\overline{8}$ $\overline{3}$

5. Ordu.

$\overline{19}$ $\overline{45}$ $\overline{25}$ $\overline{5}$ \overline{R} $\overline{43}$

6. Goian ez.

$\overline{6}$ $\overline{20}$ $\overline{44}$ $\overline{16}$ $\overline{9}$ $\overline{46}$

7. Nire.

$\overline{31}$ $\overline{33}$ $\overline{28}$

8. Oinazea edo harridura adierazteko hitz.

$\overline{41}$ $\overline{10}$

toki ezzaguna



Hans Jurgen WEINHARDT-UNSPASH



Ba al dakizu zein den ezkeraldeko irudian azaltzen den lekua?

Hala bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun otsailaren 20a baino lehen.

Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu!

personaia ezkutua



- Bastidan (Nafarroa Beherea) jaio zen, 1566an; noiz eta non hil zen, aldiz, ez da jakina.
- Sorgin izatea egotzita, birritan epaitu zuten: behin Ipar Euskal Herrian eta beste behin Hego Euskal Herrian.
- Nahiz eta torturak jasan, beti ukatu zuen sorgina zela, eta bi epaiketetan libre utzi zuten.
- Eñaut Elorrietak eta Uxue Alberdik kanta bat eskaini zioten.

Dagoeneko, badakizu zein den, ezta? Bada, joan aizu.eus webgunera, eta erantzun otsailaren 20a baino lehen. Asmatuz gero, sari baten zozketan parte hartuko duzu!

Saridunak!




toki ezzaguna: ANTOÑANA.

Sariduna: JUAN ANTONIO PEÑA.

personaia ezkutua: SHANE MACGOWAN.

Sariduna: MIGUEL LOITI GARDOKI.

hitz gurutzatuak



logika jokoa

Inhar Arregi, 20, tximeleta.
Estitxu Beitia, 22, bizkar.
Ane Gartzia, 25, crawl.
Oskar Aizpuru, 28, bular.
Naike Iribar, 30, sinkronizatua.

hamazazpi baitz

1. b; 2. b; 3. c; 4. a; 5. b; 6. c; 7. b;
8. a; 9. a; 10. a; 11. b; 12. b; 13. c;
14. a; 15. c; 16. c; 17. c.

hitz gezidunak

			C	S	L
			J	A	I
			M	A	H
			A	B	I
	I		U	O	A
A	G	A	D	I	R
	A	H	A	L	D
I	R	A	B	I	A
	O	R	E	N	E
I	B	I		T	I
	I		Z	I	N
I	D	O	I	A	A
	E	R	O	S	E
G	A	R		N	O
	K	I	S	K	A

hiztegi eroa

- 1, PROBESTU. 2, ESPALOI.
- 3, OZTOPO. 4, BARATZE.
- 5, GARIZUMA. 6, PATXADA.
- 7, KALEKUME. 8, GINGA.
- 9, ELTXO. 10, JOSTUN.

hitz katea

- 1, BIKO. 2, BILO. 3, BILA. 4, MILA.
- 5, PILA. 6, PALA.

Sinonimoak ezkondu

KORRIKA-ANTXINTXIKA.
BERRIKETA-SOLASALDI. EMARO-
POLIKI. GAIZKI-TXARTO. JADANIK-
DAGOENEKO. MARDUL-SENDO.
GERNU-PIXA. BIGUN-SAMUR.
SAMAR.

letra Zopa

D	Q	E	R	T	A	L	I	K	A	M	U
D	F	G	H	P	A	N	K	A	O	L	A
B	N	M	Q	E	R	I	S	K	R	O	P
A	S	D	F	O	E	D	E	A	R	Z	T
C	V	U	N	K	A	R	G	L	O	B	A
I	O	K	O	A	R	E	G	A	Z	O	P
Ñ	Z	E	N	U	E	Z	M	Z	U	L	A
T	Y	L	A	E	L	T	S	T	K	A	U
J	K	T	X	Z	G	L	O	K	S	A	K
W	E	E	T	I	E	A	O	P	E	T	A
B	O	T	A	A	L	G	N	K	A	E	B
A	M	E	R	H	Y	U	U	I	J	H	N

Egia ala gezurra

1. g; 2. e; 3. g; 4. e; 5. e; 6. e; 7. e;
8. g; 9. e; 10. g.

lauki lerroa

PAUSO BAT AURRERA EGITEN
DUENA BESTE INORK BAINO
LEHENAGO.

1. Argitasun; 2. Nagikeria;
3. Sorbalda; 4. Pobretu; 5. Tenore;
6. Behean; 7. Ene;
8. Ou.

atsotitza Osatu

HASTEA ERRAZ, IRAUTEA ZAIL.

Katilu, tarta, kandela, plater,
arkatz, liburu, bat, gorbata, gazta,
koilara, belauan.

Kafe eta

liburu

artean

utopia

bila

Eva Forest Liburutopiak atek zabaldu ditu Gasteizko Alde Zaharrea, munduari ikuspuntu kritikotik begiratzeko tresnak eskaintzeko eta eztabaidatzeko gune izateko.



Gasteizko Santa Maria kantoiak argi iturri berria du iragan abendutik, 4. zenbakian Eva Forest Liburutopia ireki zutenetik. Sartzean, lekuak ezaugarri bereziak dituela **antzematen**¹ da. Kafearen eta liburuen usainak nahasten dira bertan. Sarreran, mahaiz inguratutako barra txiki bat dago; atzealdean, liburu denda. Espazio fisiko horren helburua harago doa, baina. *“Elkargune bat sortzeko beharra ikusten genuen, baina ikuspuntu kritikotik hausnartzeko eta pentsatzeko eremu batena ere”*, azaldu du Xabi Lasak, proiektuko kideetako batek.

4.000 liburu inguruko **funtsa**² du dendak, eta haziz doa, poliki-poliki. Ale horien bitartez, hausnarketa kritikoa ahalbidetzea dute xede proiektuaren sustatzaileek. *“Hedabideetatik jasotzen dugun informazioak neutroa dirudi, baina ez da hala, gure ustez, eta gu geu ere ezin gara neutroak izan”*. Inguruan tresna propioen beharra dagoela hausnartu dute sustatzaileek, eta erreminta horien artean liburuak balio handia dutela pentsatzen dute. Gogoeta kritikoa sustatzeko, aipatu liburu funtsaz gain, ekitaldi sorta zabala programatu dute ia azko abenduaren 1etik: liburuen aurkezpenak, solasaldiak, hitzaldi musikatuak, Kuttunak Irakurle Txokoa...

Duela urte eta erdi inguru **erein**³ zuten Eva Forest Liburutopiaren ideiarekin hazia. Zazpi lagun elkartu, Eva Forest Kultur Elkartearen eratu, eta egitasmoa kokatzeko leku bila hasi ziren, Gasteizko Alde Zaharrean, hain zuzen ere. *“Guretzat esparru naturala da, bai hemen bizi garelako bai hemen ordu asko ematen ditugulako; babestuta sentitzen gara”*. Lokalaren ezaugarriak ikusita, proiektuari kafetegi eta liburutegi forma emateko aukera ikusi zuten, eta martxan jarri ziren Liburutopia gauzatzeko. Auzotik hasita, mundu guztiari eskaini nahi zioten gunea.

Proiektuaren izenak berak argi uzten du egitasmoaren izaera. Batetik, Eva Forest izena: *“Elkartu ginenontzat erreferente bat da, eta, toki honen helburuak aintzat hartuta, omenaldia izan zitekeen, baina proiektua definitzen zuen izena ere”* dio Lasak. Bestetik, Liburutopia abizena: *“Bi elementu elkartzen ditu: bata, liburuak, noski; bestea, helmuga duzun leku hori, hurbildu ahala gero eta urrutiago dagoena, baina mugitzen laguntzen dizuna”*.

Tresna horiek bilatzeko orduan, hizkuntzek apaletan duten lekuari ere erreparatu diote. Euskarazko **aleak**⁴ lortzea dute **lehentasunen**⁵ artean, eta hala ikusten da mahaien artean pasatzean. Edonola ere, ez dela lan

opia



EVA FOREST,

NORTASUNA EMATEN DUEN IZENA

Guneari izena ematen dion emakumea, Eva Forest, modu askotan defini daiteke, baina, kasu guztietan, ez dira faltako 'idazle', 'editore' eta 'militante' hitzak. 1928an jaio zen, Bartzelonan, eta 2007an **zendu**⁸, Hondarribian. Idatzi zituen eleberrri eta saiakeretan, bere grinak eta interesak islatu zituen, hein handi batean bere bizipenetan oinarrituta: feminismoa, torturaren aurkako borroka, internazionalismoa... 1989an, Hiru argitaletxea sortu zuen bere alaba Eva Sastre Forestekin eta Marilena Castillo Gilekin. Haren bitartez, atea zabaldu zieten beste toki batzuetan lekurik ez zuten errealitate soziopolitiko eta intelektualei. 29 urte iraun zuen argitaletxeak zabalik, eta 300 liburu baino gehiago plazaratu zituen.

1. **Antzeman:** *notar (es), se rendre compte (fr).*
2. **Funts:** *fondo (es), fonds (fr).*
3. **Erein:** *sembrar (es), semer (fr).*
4. **Ale:** *unitate.*
5. **Lehentasun:** *prioridad (es), priorité (fr).*
6. **Bertsu:** *oso antzeko, ia berdin.*
7. **Gari:** *trigo (es), blé (fr).*
8. **Zendu:** *hil.*



Kuttunak Irakurle Txokoa, Laura Mintegi eta Mari Luz Estebanekin.

erraza aitortu dute, gaztelaniaren eta euskararen arteko desoreka handia delako, argitaratutako liburuetan ere bai. Horrez gain, gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntzetako liburuak eskuratzea dute buruan, etorkizunean. *"Auzoari ekarpena egin nahi badiogu, bertan hitz egiten diren hizkuntzei arreta eskaini behar diegu"* zehaztu du Lasak.

SAREAK JOSTEN

Eva Forest Liburutopiak sareak sortzeko helburua ere badu. Proiektuaren forma **bertsua**⁶ duten guneekin bilatu dituzte loturak, Iruñeko Katakarak, Donostiako Kaxilda edo Bilboko Louise Michel-ekin, kasu, baina ez horiekin bakarrik. *"Eraldaketa prozesuan dauden eragileekin ere saretu egin behar dugu, auzotik bertatik hasita: Hala Bedi Irratia, auzo elkarte..."*

Liburutopiako kafetegia da ideia horren adibide, Irune Tobajas proiektuko kideak azaldu bezala. *"Ezagutzen ditugun egitasmoetatik datozen produktuak erosten saiatzen gara, edota auzoko lokaletakoak, harremanak sortzeko eta dirua bertan gera dadin"*. Alde Zaharreko Los Gemelos okindegian erosten dituzte bizkotxoak eta pastelak, Arabako **gari**⁷ mota bat berreskuratu duen Maeztuko okindegiarekin ere lan egiten dute, eta beste bide batzuetan ere ari dira.

Proiektuan sakontzeko lan horretan jarraitzen dute. Etorkizuneko pausoetan pentsatzeaz gain, orain arte emandakoak sendotzen segitzen dute. Ildo horri begira daude datozen hilabeteetarako prestatu dituzten ekintzak. Hurrengoa otsailaren 8an izango da: Paco Rocaren *Etxea* liburua eramango du Bego Montoriok Kuttunak Irakurle Txokora, 19:30ean. ●



Artikulu hauek erosita
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu Bilboko
Mbolo Moye Doole
elkarteari.

Prezioa **28,00 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus (+34) **943 37 15 45**

Hiru hamarkada oihal-etxeari eusten

Azterketak Euskaraz kolektiboa izanen da 23. Korrikaren omendua. Hura osatzen duten kideen egoera ezagutarazteko bozgorailua izatea du xede omenaldiak. Ane Elordi Alburquerque Korrikaren koordinatzaile nagusiak adierazi legez, “*gazte hauek, beren ikasketen une oso erabakigarrian, herritar euskaldun gisa dagozkien hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko hautua egin dute, beren notak eta etorkizun akademikoa kaltetuak izango direla jakitun*”. Ipar Euskal Herrian, baxoa eta brebeta euskaraz egin ahal izateko **aldarrikapenak**¹ hiru hamarkada bete ditu. Ikasturtez ikasturte, Seaskako ikasleek borroka horren lekukoa eskualdatu dute, belaunaldi batetik bestera. **Preseski**², hori da ederrena: irakasleak eta gurasoak lagun, gazteak dira hizkuntz eskubideen aldeko dema honetako protagonista. Horixe erakutsi nahi izan du Lander Garrok *Oihaletxea* dokumentalean, lehengo eta egungo ikasleei hitza emanez.

1. **Aldarrikapen:** *reivindicación (es), revendication (fr).*

2. **Preseski:** *precisamente (es), précisément (fr).*

Baina zer dira baxoa eta brebeta? Gaia jada landu genuen AIZU! aldizkariaren 477. zenbakian. Baxoa da Ipar Euskal Herriko ikasleek goi mailako ikasketak egin **aitzin**¹ gainditu behar duten azterketa multzoa, Hegoaldeko selektibitatearen antzekoa. Brebeta, ostera, 14-15 urteko ikasleek kolegioa gainditu dutela erakusteko egiten dute eta, iragan urtetik, euskaraz egin dezakete osoki Seaskako ikasleek, baxoa ez bezala. Lander Garrok (Errenteria, 1975) auzi hori izan du hizpide *Oihaletxea* dokumentalean.



Lander Garro. Zigor GARRO



Zer zerikusi du kanpin denda batek azterketak euskaraz egiteko eskubidearekin?

Paralelismo bat irudikatu nahi nuen. Oihal etxea babesten zaituen etxe bat da, baina ahula, era berean; hau da, kanpoko fenomenoaren aurrean, **zaugarria**². Ondorioz, euskaldunok gure oihal etxearen **hauskortasuna**³ zaintzen gabiltza, haizeak gogor jotzen duen aldiro askatzen diren sokei eutsiz, ekaitzak gure etxea desegin ez dezan. Eta etengabeko borroka horretan murgildurik, gure egiazko adreiluzko etxea eraiki ezinean gabiltza... gure hizkuntza babestuko duen egitura politiko egonkorra eraiki nahi eta ezinean. Horixe da gure bizitza, hazi beharrean, biziraun.

Oihal etxeak, halere, malguak⁴ dira. Kolpe bat jaso eta jatorrizko forma berreskura dezakete. Hain zuzen ere, baikortasun hori erakutsi nahi izan duzu...

Bai, nire ustez, dokumental honek oso energia polita transmititzen du. Agertzen diren pertsonaiak gazteak dira; adibidez, azterketak euskaraz egitearen alde Bordele eta Baiona arteko bizikleta martxa egin zuten ikasleek 14-15 urte dituzte. Seaskan ohituta daude, agian, haur hain

kontzientziatuak ikusten, baina Hegoaldean ikusaraztea interesgarria iruditu zitzaidan. Eta egia da Iparraldeko ikastoletan lan handia egiten dela, konplexu gutxiarekin, haurrek heziketa politiko eta sozial indartsuagoa izan dezaten. Beraz, bai, dokumentalari energia oso positiboa dariolakoan nago.

Filmean, 30 urteko ziklo bat erakutsi duzu...

Bai. Aita bat eta haren alaba elkarrizketatu ditut. Gizona baxora bitarteko ikasketak ikastolan egin zituen lehen belaunaldikoa da. Hain zuzen, belaunaldi horretakoek ekimenez abiatu zuen Seaskak bere lizeoko **lerroa**⁵. Aita horren alabak, iaz, baxoa frantsesez egin zuen. Biak elkarrekin jarri nituen, Iparraldeko ikastolek 30 urtez pairatu duten ziklo luze hori erakusteko.

Sortzaile gisa, nondik heldu nahi izan diozu gaiari?

Estetika zaintzea gustatzen zait, baina handinahirik gabe eta naturaltasuna zainduz. Gakoa, ordea, protagonistei hitza ematea da. Ordu erdiko dokumentalean, hemezortzi lagun elkarrizketatu ditut. Borroka horren inguruan jende asko mugitzen dela ikusarazi nahi nuen.



Hainbat lagun elkarrizketatu ditu Lander Garrok dokumentala egiteko.



"IPARRALDEKO IKASTOLETAN LAN HANDIA EGITEN DA, KONPLEXU GUTXIREKIN, HAUREK HEZIKETA POLITIKO ETA SOZIAL INDARTSUAGOA IZAN DEZATEN"

"ORDU ERDIKO DOKUMENTALEAN, HEMEZORTZI LAGUN ELKARRIZKETATU DITUT; BORROKA HORREN INGURUAN JENDE ASKO MUGITZEN DELA IKUSARAZI NAHI NUEN"

Baxoak, egun, gutxi irauten du. Zergatik da hain garrantzitsua?

Lehenik, inposizioa delako, Frantziako Estatuarekiko mendekotasuna⁶ irudikatzen duena. Bigarrenik, ikasleentzat zailtasun handia delako. Ikasleek eurek dokumentalean dioten bezala, azterketak frantsesez egin behar izatea zailtasun gehigarria da, euskaraz landu duten gai bat beste hizkuntza batean azaldu behar dutelako. Eta, hi-

rugarrenik, baxoak asko baldintzatzen die azken ikasturtea; hainbeste, ezen ikastaro batzuk frantsesez ematera behartuak diren ikastolan.

Zein lotura ikusten duzu Azterketak Euskaraz kolektiboaren eta Korrikaren arten?

Lekukoa. Baxoa Euskaraz ekimenaren segida (edo lekukoa) belaunaldi batetik bestera pasatzen delako urtero. Gainera, begira zein bitxia: bai Azterketak Euskaraz bai Korrika ekimen ederrak dira, baina desagertzeko sortuak. Gauza xelebrea da. Korrika oso polita da, baldin eta hiltzeko sortu zela ulertzen badugu. Korrikak, bere edertasunean, desagertu egin nahi du. Alegia, nahiko luke irauteko arrazoirik ez izan. Zeren Korrika desagertzen bada, euskarak bere adreiluzko etxea lortu duelako izango baita. ●

1. **Aitzin:** *aurretik, baino lehen.*
2. **Zaugarri:** *vulnerable (es), vulnérable (fr).*
3. **Hauskortasun:** *fragilidad (es), fragilité (fr).*
4. **Malgu:** *flexible (es), flexible (fr).*
5. **Lerro:** *ildo, bide.*
6. **Mendekotasun:** *subordinación (es), subordination (fr).*



Reyes Ilintxeta

Iruñea, 1968

Euskalerria Irratian euskaraz entzun dezakegu, egunero, Ilintxeta kazetaria. Euskara ikasten eta kazetaritza ikasketak amaitzen ari zela hasi zen Iruñerriako irradian praktketan, eta ordutik dabil bertan lanean. Beste hainbat hedabidetan ere bai: *Argia* astekaria, *Ze berri?* aldizkaria... Hizketan zein hizpide, euskara ahoan.

Atalaren protagonista guztien testigantzak:
<https://www.aek.eus/eu/bloga/zelan-euskaraz>

“Trikimailu onena, hiztun onei aditzea eta erreparatzea”

Zergatik erabaki zenuen euskara ikastea?

Gure familian erabat galdua zegoelako. Gurasoek ez zekiten euskaraz. Amaren aldeko aitona-amonek bai, baina, toki askotan bezala, belaunaldi batean galdu egin zen. Hala eta guztiz ere, gure eguneroko hizketa **moldean**¹ hitz asko mantendu egin ziren, baita tokien izenak, kantuak... ere. Hortik sortu zitzaidan jakin-mina. Giro horretan hazi ginen txikitan, zerbait falta zitzaigula sumatzen bezala. Horregatik eman nuen izena, ahal bezain laster, auzoko euskaltegian, Arrosadian. AEK-k euskaltegia zabaldu zuen, eta kazetaritza ikasketak hasi nituen urte berean hasi nintzen han ikasten, falta zitzaigun hori berreskuratzeko.

Nolako prozesua izan zenuen?

Oso dibertigarria, oso polita, oso azkarra eta sorpresaz betea. Niri asko gustatzen zitzaidan, adibidez, hasi berria zen Euskalerria Irratia entzutea, edo bertsolariak, musika... Hasieran, horrelako deskubrimenduak egunero egiten nituen. Liluragarria iruditzen zitzaidan, batez ere, euskaldun zaharren hitz egiteko modua: zein gutxi korapilatzen diren hitz egiteko! Pixkanaka, gero eta gehiago sartu nintzen, gero eta gehiago ikasi nuen. Ondoren, AEKn ez zenez sortu EGA eskuratzeko ongi zetorkidan talderik, Arturo Campion euskaltegira joan nintzen, eta arazo handirik gabe gaintitu nuen. Gainera, ikasturte hartan AEKtik deitu zidaten eskolak emateko. Aldi berean, karrera amaitzear nuela, Euskalerria Irratian praktikak egiten hasi nintzen. Erabateko murgiltzea

izan zen irrateria, egunero pila bat ikasten nuen. Eskolak eman, irradian hasi, titulua lortu... dena urte berean izan zen.

Zer izan zen zailena zuretzat?

Bereziki zaila, naturaltasunez hitz egitea. Euskaldun berriok gauzak erraz esateko baliabide gutxi dugunez, arreta handiz entzun behar dugu euskaraz ongi hitz egiten dutenek nola esaten dituzten. Pertsona askori berez ateratzen zaiena guri ez, eta kostatu egiten zaigu. Hortaz, dena hitzez hitz aztertu behar dugu, gero kopiatzeko. Prozesu landua da, luzea eta exigjentea; baina lortuz gero, oso polita.

Eta errazena?

Gustura zaudenean eta gogoz zaudenean, gauzak oso-oso ongi ikasten eta finkatzen dituzu, kasik esfortzurik egin gabe.

Trikimailuren bat?

Onena da hiztun onei aditzea, lasaitasunez hartzea eta entzutea. Euskara naturala hitz egiten duten pertsonen aditzea eta erreparatzea, nola egiten duten esan nahi dutena oso hitz gutxirekin esateko. Guk esaldi oso luze eta **katramilatsuak**² egiten ditugu; bada, aztertu nola hitz egiten duten hiztun onek eta saiatu kopiatzen. ●

1. **Molde:** modu, era.

2. **Katramilatsu:** korapilatsu, konplikatu.

Zorionak Aitsasuko kinto guztiei

Otsailaren 5a egun berezia da herri nafarrean. Santa Ageda ospatzen dute, Euskal Herriko leku askotan bezala, baina benetako protagonistak gazteak dira. Zehazki, dagokion urtean 18 urte betetzen dituztenak, hots, kintoak.



OTSAILAREN 5A ALTSASUN
EGUN HANDIA BADA ERE,
IA ASTEBETEZ
LUZATZEN DIRA JAIAK

2005ERA ARTE HITZORDUA
GIZONEZKOENA BAKARRIK ZEN,
BAINA URTE HARTATIK NESKEK
ERE PARTE HARTZEN DUTE

Euskal Herrian, Agate Deunaren eguna ez da **oharkabean**¹ pasatzen. Ohikoa da herri askotan egutegian markatuta izatea eta horri lotutako ospakizunen bat izatea. Altsasun, esaterako, oso data garrantzitsua da, gazteentzat bereziki. Izan ere, otsailaren 5aren bueltan, kintoen egun handia ospatzen dute.

Oso ohitura errotua da kintoena: adinez nagusiak bihurtzen zirenean, soldaduskara deitzen zituzten gazteak. Iraganean, mutilak bakarrik irteten ziren, haiek joan behar zutelako derrigor zerbitzu militarra egitera. Baina betebeharrak hori desagertu zenean, ospakizun **kutsuari**² eutsi, eta azken hamarkadetatik hona emakumeek ere parte hartzen dute.

Altsasuko kintoen jaiaren berezitasunen artean, **iraupena**³ nabarmendu behar dugu. Otsailaren 5a egun handia bada ere, ia astebetez luzatzen dira jaiak. Izan ere, festa ekitaldi berezi baten inguruan antolatzen da: zortzikoa. Ohituraren arabera, kinto guztiek zortzikoa dantzatu

behar dute, banan-banan. Jaiak ez dira amaituko denek dantzatu arte.

Ospakizun guztietan bezala, aurretik prestaketa lan batzuk daude. Horien arduradunak, noski, kintoak izango dira. Horra ospakizun honen beste berezitasun bat, arduradunak ez baitira edonola hautatzen. Hilabete atzera egin eta urtarrilaren 6ra joan behar da, Errege egunera, hain zuzen ere. Festarako errege eta erregina bina aukeratzen dira, zozketaz, urte horretan **adin nagusitasuna**⁴ bereganatuko dutenen artean. Kintoen ordezkariak izango dira, beste modu batean esanda. Prozedura ere, bitxia: zozketa karten bidez egiten dute.

Kintoen jaiaren parte hartu nahi duten gazteak udaltxerara hurbiltzen dira egun horretan. Parte hartzaile guz-



KINTOAK, ERRALDOI

Ordezkariek ere badituzte kintoak **erraldoien**⁸ artean. Izan ere, 2019. urteaz geroztik, Altsasuko Erraldoiek bi pertsonaia berri dituzte taldean: Kinto eta Kinta. Berritasun honekin, herriko gazteak omendu eta, jakina, irudikatu nahi izan dituzte, Santa Ageda egunean soinean daramatzen jantzi eta elementuekin.

1. **Oharkabea:** *inadvertidamente (es), par inadvertance (fr).*
2. **Kutsu:** *zapora, izaera.*
3. **Iraupen:** *duración (es), durée (fr).*
4. **Adin nagusitasun:** *mayoría de edad (es), majorité (fr).*
5. **Biziki:** *intensamente (es), vivement (fr).*
6. **Aurrekari:** *precedente (es), précédent (fr).*
7. **Esanguratsu:** *garrantzitsu.*
8. **Erraldoi:** *gigante (es), géant, -e (fr).*

tiak biribil bat osatzen dute eta alkateak, erdian jarrita, txanpon bat botatzen du lurrera. Txanponak arrano baten irudia du alde batean, eta arranoaren begirada jasotzen duen pertsonarekin hasten dira karta sortako kartak banatzen. Horrela, lehenbizi suertatzen diren erregeak eta erreginak jaia antolatuko dute. Bigarrenak, berriz, opilak biltzeaz arduratuko dira otsailaren 5ean, ondoren saltzeko. Urtarrila osoa emango dute zortzikoa prestatzen, urduri, Santa Ageda egunaren zain.

Egun handian, goizean goiz elkartzen dira, zenbait altsasuarrek kontatu digutenez: *“Aurreko urtean, esaterako, hitzordua 6:30ean jarri zuten. Gosalduta eta gero eskeari ekin zioten”*. Horren ostean, kinto buruzagiek aginte makila hartzen dute, alkatearen eskutik, eta dirua biltzen eta opilak jasotzen aritzen dira. Horrekin ordainduko dituzte festetan sortutako gastuak. Elkarrekin bazkaldu ondoren, iluntzean, zortzikoa lehenengo aldiz dantzatzen dute plazan. Errege-erreginek aukeratuak izan ziren egunetik entseatutakoa erakusteko unea iritsi da.

Aurrena, kinto buruzagiak dantzatzen dira, eta gero gainerakoak, txandaka. Esan bezala, festak ez dira bukatzen harik eta guztiek zortziko bana dantzatu arte.

Altsasuko herritar guztiak bat datoz Santa Ageda egunak eragiten dienaz mintzatzean: *“Hemengo gazte batentzat bere bizitzako festarik garrantzitsuena da. Biziki⁵ ospatzen dute”*. Azken finean, txikitatik ikusi dituzte neska-mutilak dantzan ateratzen, beren unea noiz iritsiko zain.

Gaur egungo garaietara egokituriko tradizioa ere bada. Izan ere, aspalditik datozen kontu asko bezala, hitzordu hau gizonezkoentzat bakarrik zen. Egia da denborak aurrera egin ahala emakumeek presentzia handiagoa lortu dutela, baina, hala izan dadin, **aurrekari**⁶ bat beharrezkoa izan zen. 2005ean, urte hartako bi kintok, bi neskak, zortzikoa dantzatzea erabaki zuten. Berdintasuna, ohiturak aldatzeko eta garai berrietara egokitzeko aldarrikapena izan zen, andrazkoek dantzatu zuten lehen aldia izan baitzen. Harrezkero, ez du etenik izan.

Aurtengo kintada, esaterako, 55 gaztek osatzen dute: 31 neska eta 24 mutil. Horrez gain, 1983an kintoak izan zirenek (aurten 60 urte egingo duten altsasuarrek) ere ospatuko dute Agate Deuna. Dagoeneko hasi dira presaketekin, besteak beste emakumezko buruzagien hautaketarekin. Duela 41 urte, gizonezko buruzagiak baino ez zituzten aukeratu; horregatik, oraingo hautaketa *“ekitaldi sinboliko bezain esanguratsua”* izan da orduko kintoztat. ●

ilustratu



(H)ilbeltzak, 10 urte eta 6 beka

Euskal Nobela Beltzaren Asteak 10. urteurrena ospatu du Baztanen urtarrilaren 22tik 28ra bitartean. Eusebio Erkiagaren, Jon Alonsoren eta Jon Mirandereren lanak izan dituzte hizpide, besteak beste, eta, beti bezala, egitaraua (H)ilbeltza bekaren irabazlearekin hasi dute: Beñat Irastorza Ugaldereen *Altxa, hildakoak* liburua, Fred Vargas idazle frantsesaren *Les Évangélistes* nobelaren itzulpena, hain zuzen. (H)ilbeltzak duela 8 urte abiatu zuen dirulaguntza, Txalaparta argitaletxearekin eta Baztango Udalarekin batera, euskal literatura beltza zabaldu eta munduko literatura beltza euskaratzeko. Hala, Joxean Oiz Arrutiren lana ere bidean da, VII. Bekari esker idatzi eta datorren urtean aurkeztuko duena. Aurtengoa Núria Cadenesen *Guillem* lana itzultzeko izango da, eta irabazleak 2026an aurkeztuko du.

Juantxo EGAÑA



MIKEL SOTO

idazle eta editore ohiak irabazi du Tene Mujika beka, Jon Miranderi buruzko **iker-keta**¹ proiektu baterako: *Miran-*

de: Herriminez, ezin-minez. Idazle paristarra eta haren obra hobeki ezagutzeko giltzak eskaini nahi ditu Sotok. Batetik, Britainiarekin eta abertzale bretoiekin izandako harremana ikertu; bestetik, Mirandereren lan ezezagunak topatzen saiatu, batik bat bretoieraz idatziak; eta, azkenik, idazlearen biografian egin diren azken aurkikuntzak bateratu, biografia osatua plazaratzeko.

1. Ikerketa: *investigación (es), recherche (fr).*

2. Jazo: *gertatu, pasatu.*

3. Jazarpn: *persecución (es), persécution (fr).*

4. Gordin: *crudo, -a (es), dur, -e (fr).*

5. Gutxietsi: *subestimar (es), sous-estimer (fr).*

6. Aipu: *cita (es), citation (fr).*



Irakurtzeko


ARAGUANAY LOREA

Martin de Aranezio
Ataramiñe, 2023



1961ean Maria Mercedes Antxeta euskal-venezuelar gazteari Donostian **jazo**² zitzaionak kronika izan behar zuen, baina nobela bihurtu da, informazio ezagatik: ezin Antxetaren zuzeneko seniderik aurkitu, ez Venezuelan ez Euskal Herrian. Venezuelan ez dago Espainiako poliziarengandik jasandako torturei buruzko argibiderik ematen duen agiri ofizialik, eta Espainiako artxibo ofizialetan kasua ez da existitzen.

Agustin Zubikarai saria merezi izan zuen komedia honek. Insomnioari buruzko erreportajea balitz bezala hasten da, baina laster bilakatzen da detektibe nobela, misterio, **jazarpn**³ eta guzti, funtsean gure gizartearen diagnostiko **gordina**⁴ egiteko. Horrekin batera, amodiozko eleberrien kutsua hartzen du, zita, sedukzio eta maite jolasekin. Guztia tonu jostalari, arin eta dotorean idatzia.



LOAK EZKUTATZEN DUENA

Patxi Zubizarreta
Elkar, 2023

Idazlea
kontu kontari



IRATI JIMENEZ

“Gauzak botatzeko sekulako erraztasuna dut”

Idazle bat? Txomin Agirre, euskal idazle gutxietsiena⁵.

Opari egiteko liburu bat? Oparia nori egiten zaion...

Irakurtzeko lekurik onena? Etxeko sofán, terraza batean, trenean, komunean...

Zer gosaltzen duzu? Kafesnea eta ogi txigortua etxeko marmeladarekin.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena?

Ohean egun osoan geratzea, konpainia goxoan.

Zein esaldi edo esakune errepikatzen duzu askotan?

Milaka, **aipuen**⁶ bidez hitz egiten dut.

Zertan ez zaizu inporta gehiegitxo gastatzea?

Bizitza errazten duen edozertan.

Norekin joango zinateke trago batzuk hartzera? Nahi baino gutxiagotan ikusten ditudan bihotzeko lagunekin.

Pertsonaia historiko bat? Zizeron: geuk ere ez dakigu literatura arerioengandik defenditzen.

Zer dago traban zure etxean? Ezer ez, gauzak botatzeko sekulako erraztasuna dut!

Joateko asmoa daukazu leku bat? Porto, laster; eta Sizilia, noizbait.

Zure lehen mito erotikoa? McGyver!

Zure bertuterik onena? Dena ulertzen saiatzen naiz.

Zure akatsik handiena? Dena ulertzen saiatzen naiz.

Besteengan errazen barkatzen duzuna? Besteek benetan sentitzen dutena.

Eduki nahiko zenukeen eta ez daukazu dohaina?

Bizitzeko berezko adorea duen jendea.

Badakizu aureskua dantzatzen? Ez, tormentuzko hiru-lau eskola oroitzen ditut.

Lurpera, erraustu ala zure gorpua zientzia ikerketarako? Geratzen direnek agur esateko modua merezi dutenez, errausketa.

aek

673 200 100 · 946 464 000
forua@aek.eus · gernika@aek.eus
www.aek.eus

BARNETEGIAK

- » Otsailaren 5etik martxoaren 1era
- » Martxoaren 4tik apirilaren 5era
- » Apirilaren 8tik maiatzaren 3ra
- » Maiatzaren 6tik 31ra
- » Ekainaren 3tik 28ra

631 euro.
(Eskolak + mantenu osoa*)

*Eskolak + mantenu erdia egiteko aukera.

belarrion



Ibai ARRIETA

Gorka Urbizu berriro hasi da

Hasiera bat izena jarri dio nafarrak bere bakarkako lehen diskoari. Albuma osatzen duten 10 abestiak ere antzera izendatu ditu, azkena izan ezik: *Maitasun bat*, *Teoria bat*, *Tren bat*, *Toki bat*, *Janela bat*, *Kolore bat*, *Lilura bat*, *Etxe bat*, *Sute bat* eta *Besterik ez*. Berri Txarrak taldeak agertokiei agur esan zientetik lau urte pasatu direnean kaleratu du lan hau, egungo bizimoduaren abiadura bazterrean utzita: patxadaz sortua, barnera biltzeko gonbita egin dio entzuleari. Laster hasiko du aurkezpen bira ere: otsailaren 23an, 28an eta 29an, Donostian, Bilbon eta Gasteizen, hurrenez hurren; apirilaren 12an, 19an eta 27an, Iruñean, Madrilen eta Bilbon; maiatzaren 18an eta 25ean, Biarritzen eta Bartzelonan; eta ekainaren 7an, Azpeitian. Lehen sarrerak agortuta, kontzertu gehiago ere ari dira antolatzen.



EHZ festibala Arberatzen (Amikuze) egingo dute, **lehendabizikoz**², ekainaren 28tik 30era. Abenduan kaleratutako Eguberriko bonua berehala agortu bazen ere, hil honen amaieran txartelak aurretiaz eskuratzeko beste aukera bat egongo da. Egitaraua ez da ezaguna oraindik, baina jakina da Benizze bertan izango dela, musikari gasteiztarrak irabazi zuelako Elkar argitaletxeak, EHZ festibalak eta Antxeta irratiak, Iñigo Muguza gogoan, antolatzen duten Paradisu Zinema bekaren lehen edizioa.

1. Laga: *utzi*.

2. Lehendabizikoz: *lehen aldiz*.

3. Goretsi: *alabar (es), louer (fr)*.


Entzut  lekol

ATZO/GAUR
Modus Operandi
Baga-Biga, 2023



Taldearen hirugarren lanak iragana eta oraina batu ditu, etorkizunera jotzeko. *Atzo* diskoko bost kantuek euskal musika taldeak **gores-tea**³ dute xede, horietako bost esanguratsu aukeratuta: *Latzen*, *Barricada*, *Berri Txarrak*, *La Polla Records* eta *Ken Zazpi* taldeen abesti banaren moldaketa irekiak dira. *Gaur* diskoak, berriz, bost kantu berri dakartza, abestiren batean aurreko lanetako izpiren bat egon arren.

Gipuzkoarren estudioko bigarren diskoa aldaketei buruz hitz egiten duen lan kontzeptuala da. Guztiok bizi ditugun aldaketen gainekoa: lanez aldatzea, bikotekidearekin hasi edo amaitzea, toki berri batera bizitzera joatea edo, besterik gabe, denboran aurrera egitea. Inoiz baino *pope-roago*, Tomas Lizarazu, Xabier Arrieta eta Ruben Lizarraldekin hamar abesti bildu dituzte album honetan.



ALDATU AURRETIK
Bulego
Panda Artist, 2023

Disko gogokoenak



GOTZON HERMOSILLA



KATUZALDIA

Ezezez


Egilea editore, 2023

Ezetz ezetz da

Unai Madariaga musikari bizkaitarrak bakarlari eta ingelesez kantatuz hasi zuen bere ibilbidea. Geroago, beste zenbait musikarirekin batera, Ezezez taldea sortu zuen. 2022an argitaratutako disko baten ostean, iaz *Katuzaldia* iritsi zen, taldearen bigarren lan luzea eta euskaraz plazaratutako lehenengoa. Denetarik dago bertako hamabi kantuetan: after punk dantzagarria, distortsioz eta gitarra ozenez apaindutako indie rocka, pop eta psikodelia, Wire eta Ama Say; eta, batez ere, mendebaldeko euskaraz idatzitako oso testu interesgarriak, eguneroko bizimoduan **lilura**¹ eta fantasia bilatzen dakitenak. Iazko Durangoko Azokak ekarritako ezustekorik atseginenetako bat.

1. Lilura: *fascinación (es), fascination (fr)*.

Jon GARATE



AMORANTE

Musikaria
mintzo



Musikari (edo talde) bat? Mixel Etxekopar.

Opari egiteko disko bat? *Soul of Angola:*

Anthologie De La Musique Angolaise 1965 - 1975.

Musika entzuteko lekurik onena? Pasieran, kaskoekin; mendira bidean, kaskoak kenduta.

Zer gosalitzen duzu? Tostadak ahuakatearekin edo tahinarekin eta kafea.

Zer galtzen zaizu beti? Aterkiak.

Zein esaldi errepikatzen duzu askotan?

"Hau ez da kasualitatea" esaldia.

Zertan ez zaizu inporta gehiegitzo gastatzea?

Erosotasunean.

Zure lehen mito erotikoa? Nire herriko neskatxa maite bat.

Pertsonaia historiko bat? Ramon Franco,

diktadorearen anaia. Oso pertsonaia interesgarria.

Bestondoari aurre egiteko erremediorik onena?

Normalean ez dut bestondorik edukitzen.

Zure bertuterik handiena? Inprobisatzeko gaitasuna, agian.

Eta lagunengan gehien estimatzen duzuna?

Zintzotasuna.

Zer eramango zenuke uharte huts batera?

Hamaka bat.

INTXAURTUETA 5. behea
20540 ESKORLATZA - GIPIZKOA
943 715 543 - 629 513 922
frixixi@frixixi.com


Arkitektura Proiektuak

- Obra berria • Zaharberritzeak •
- Igogailuen proiektuak • Txosten teknikoak •
- Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT-ITE) •
- Eraikinen Energia Ziurtagiria •

Eska ezazu aurrekontua konpromisorik gabe.

BIARK STUDIO arkitektoak

Usaetxe Plaza, 1, behea • Arrasate • 943 798 033 • 679 736 329 • 652 755 446
www.biark.net • biark.arkitektoak@gmail.com



Korrika aplikazioa, guztiz eraberritua

23. Korrika bertatik bertara jarraitzeko tresna ezin egokia da Korrika aplikazioa. Berritu egin dute, eta nobedade ugari ditu. Batetik, itxura aldatu diote, eta atal berriak gehitu. Esaterako, Korrika Laguntzaile txartela **txertatuta**¹ dauka. Horrenbestez, sakelakoan bertan eraman daiteke txartela. Era berean, Korrika Laguntzaileen artean astero egiten diren zozketen berri ematen du aplikazioak. Bestetik, Korrikaren ibilbidea **xehetasun**² osoz eza-gutzeko aukera ematen du. Dagoeneko ikusgai dago, baina zuzenean ere ikusi ahal izango da: Korrika furgoneten geolokalizazioari esker, erabiltzaileek une oro jakingo dute Korrika non dabilen, atzerapenez edo aurrerapenez datorren... Bilatzaile aurreratua ere izango du, gainera. Horiez guztiez gain, Korrikari buruzko jakingarri guztien berri emango du. Android zein IOS bertsioetarako, *korrika.eus* webgunean eskura daiteke, doan.

S O & U K I & K L I K

'Artxibo biluzia', antzerkiaz harago



Metrokoadroka kolektiboak *Artxibo biluzia* estreinatu du, konferentzia performatiboa eta antzerkia **uztartzen**³ di-tuen pieza eszenikoa. Usurbilgo Udalak eta Jakin Fundazioak sortutako I. Joan Mari Torrealдай Ikerketa Bekari esker garatu dute "*ikerketa eszeniko hau*". Torrealдайri, *Euskaldunon Egunkaria* itxi eta atxilotu zutenean, ezin konta dokumentu kendu zizkioten. "*Biluzik utzi ninduten, ez fisikoki, baizik eta intelektualki*", adierazi zuen, une hari buruz, geroago. Bada, proiektu eszenikoak egun hartan hutsik geratutako karpeta bat du abiapuntu. Marina Suarez Ortiz de Zarete eta Oier Guillanek zuzendua, bi aktore paratzen ditu oholtzan, publikoarekin elkarriketan: Intza Alkain eta Javier Barandiaran. Pieza eszenikoaz gain, beste bi atal ditu proiektuak: idazketa/performance tailerra eta aurrerago plazaratuko duten argitalpena. Urtarrilaren 12an Usurbilen estreinatu ostean, Loraldia festibalean eskainiko dute, martxoaren 12an, Bilbon.



VI. LAUTAN HIRU antzerki jaialdia otsailaren 8an, 15ean, 22an eta 29an izango da. Egitaraua hilaren hasieran ezagutaraziko dute, eta, iaz bezala, zortzi ekitaldi izango dira orotara, ostegun bakoitzean bi. Hori bai, gune berri bat gehituko zaio aurten: Bilboko Alde Zaharreko ohiko tokietan ez ezik, La Sinsorga kulturgunean ere eskainiko dituzte emanaldiak. Euskaltzaindiak antolatzen du jaialdia, BIRA Kultura,

Cafe Bar Bilbao eta 7Katu gaztetxearekin batera, eta hiru helburu ditu: euskarazko antzerkia **hauspotzea**⁴, antzerkilariei plaza berriak eskaintzea eta Bilboko Zazpikaleetan euskara eta euskal kultura sustatzea.

1. **Txertatu:** sartu.
2. **Xehetasun:** *détalle (es), détail (fr).*
3. **Uztartu:** *batu, bat egin, elkartu.*
4. **Hauspotu:** *bultzatu, sustatu, zabaldu.*

Albiste koskorak




NEGU HURBILAK filma otsailaren 23tik aurrera ikusi ahal izango da Hego Euskal Herriko zinema aretoetan. Izan ere, Negu Kolektiboaren (Ekain Albite, Mikel Iburguren, Nicolau Mallofré eta Adriá Roca) lehen fikziozko film luze hau iaz aurkeztu zuten Locarnoko 76. Zinemaldian, eta, jaialdiz jaialdi ibili ostean, orain eskainiko dute areto komertzialetan. Ihesaldi bat oinarri hartuta, isolamendua eta itzarotea ditu hizpide.



David HERRANZ

KUKAI DANTZAK Txalaparta lana estreinatuko du, otsailaren 3an, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Errenteriako konpainiaren eta Jesus Rubio Gamo koreografoaren arteko elkarlana da, eta Jon Mayak zuzendu du. Zazpi dantzarik taularatuko dute musika tresna eta gorputza harremanetan jartzen dituen pieza: Alain Maya, Arantza Iglesias, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Izaro Urrestarazu, Nerea Vesga eta Urko Mitxelena. Otsailaren 3an eta 4an Donostian eskaini ostean, 16an Bilbon eta 29an Gasteizen egingo dute, besteak beste.



TOURE DETEKTIBEA telesailaren estreinaldia otsailaren 1ean izango da, EITBren Primeran plataforman. Jon Arretxeren eleberrri ezagunean oinarritutako lana gaztelaniaz grabatu bazuten ere, euskaraz bikoiztuta eskainiko dute Primeranen. Esteban Crespok eta Violeta Salamak zuzendu dute telesaila. TVEk ere otsailetik aurrera eskainiko du, baina gaztelaniaz. Udaberrian, berriz, ETB1en ikusi ahal izango da.

BATEN BEHARREAN, euskarazko bi lan saritu dituzte Cafe Bar Bilbao XXI. antzerki sariketan: Iñaki Cid Larrearen *Arropazuria* eta Pantzo Hirigarainen *Dolu* (*Bizpahiru* antzerki trilogiako lana). Gaztelaniaz, oster, Braulio Cortés Díazen *Diario*



de desdichas lana izan da garaile. Lautan Hiru jaialdian, euskarazko bi lan irabazleen irakurketa dramatizatua egingo dute, baina dagoeneko irakurgai daude Cafe Bar Bilbaoren webgunean: www.bilbao-cafebar.com.

@AIZUaldizkaria
AIZUaldizkaria
aizu!
@aizu.aldizkaria
www.aizu.eus

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~
ALDABA TXIKI AUZOA - TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64
WWW.ISASTEGI.COM ISASTEGI@ISASTEGI.COM



Kuolleet Lehdet

ISTORIOA: Ansa Helsinkin bizi da. Supermerkatu batean egiten du lan, eta bizitza nahiko bakartia du. Gau batean, Holappa ezagutuko du, Ansaren antzera bizitza bakarti samarra duen langile **zurruteroa**¹. Maitasun harremana sortuko da haien artean, nahiz eta bidean oztopo eta gaizki ulertu **mordoxka**² agertu.

SARIAK: Cannesen, Epaimahaia-
ren Saria jaso zuen iaz, eta beste zenbait aitorten eta izendapen ere jaso ditu han-hemenka. Kritikak ere txalotu du, oro har.

ONENA: Bai estilo bai eduki alde-
tik, Kaurismäki bete-betean. Plano finko eta luzeak, ikusten dena ikusten ez dena bezainbeste erakusten dutenak; kolore estilizatuak; elkarrizketa urri eta laburrak; aktoreen interpretazio neurritsu bezain **adierazgarriak**³; musikari eskainitako mimo berezia... Hain bere dituen estilo ezaugarriekin oso berea den lana eskaini digu zuzendari finlandiarrak, jakina. Rock doinuek lagunduta eta

ZUZENDARIA: AKI KAURISMÄKI.


GIDOIA: AKI KAURISMÄKI.

AKTOREAK: ALMA PÖYSTI, JUSSI VATANEN, JANNE HYYTIÄINEN, ANNA KARJALAINEN.

FINLANDIA, 2023.

taberna giroan, gizartearen bazterrak hurbil dituen jende langile arruntaren gorabeherak xamurtasunez eta modu **soilean**⁴ kontatuak, **sotilki**⁵ eta ironiaz, umorez, baina tristura ezkutatu gabe, betiere gizatasun handiz. Hori guztiori, gainera, iraupen luzerik gabe (azkenaldiko joerak ikusita, harritzekoal!). Bestalde, ezin aipatu gabe utzi zinemari egiten dizkion keinu eta erreferentzia ugariak, zinemazale sutsuenei ez ezik, hain jantziak ez direnei ere atentzioa emango dietenak.

TXARRENA: Esandakoa: Kaurismäki bete-betean. Maite duenak gozatuko du, gustuko ez duenak... hor konpon, Marianton!



LEIRE
ORMAZABAL
AKTOREA

Gustuko duzun filma? Umea nintzean, *The Pianist*-ek zirrara eragin zidan.

Zuzendari bat? Iciar Bollainen lanak asko gustatzen zaizkit.

Askotan ikusi duzun filma? *Forrest Gump* eta *Stuart Little*.

Osorik ikusi gabe utzi zenuen...

Film puska dela badakit, saiatu naiz, baina nekatuta ikusi izan dudalako, agian, *The Silence of the Lambs*.

Lagun bati ez zenioke inoiz gomendatuko... *Élite* telesaila eta *Torrente*.

Gustuko duzun aktore bat? Julia Roberts eta Leonardo DiCaprio.

Gustuko duzun telesaila? *How to Get Away With Murder*.

Zinemara bakarrik ala lagunduta? Erdia eta erdia.

Zinematik atera eta gero... Bietara, neurri berean.

Krispetak, bai ala ez? Bai.

Ikusi duzun azken filma? *La sociedad de la nieve*.

Ikusi nahi duzuna? *La memoria infinita*.

Eta ikusi nahi duzun telesaila? *True Detective*.

1. Zurrutero: alkohola sarri edaten duen pertsona.

2. Mordoxka: dezente, nahiko.

3. Adierazgarri: *significativo, -a (es)m, significatif, -ive (fr)*.

4. Soil: *simple*.

5. Sotilki: *sutilmente (es), subtilement (fr)*.



Galletarik nahi?

'Cookie' (galleta, ingelesez) esaten zaie webgune gehienek gure gailuetan idazten dituzten testu artxibo labur batzuei. Webguneko bisitarietako bakoitza kode ezberdin batekin identifikatzeko balio dute, horrela funtzionamendua arintzeko. Adibidez, online denda batean sartzen zarenean eta zure erabiltzailea eta pasahitza idazten dituzenean, hurrengo bisitan berriz idatzi beharrik ez izateko.

Cookieen erabilera hedatu eta **korapilatu**¹ egin da denborarekin. Publizitaterako asko erabiltzen dira, gure nabigazio ohiturak aztertu eta haietan oinarrituta iragarki bat ala beste eskaintzeko. Hala, helburu tekniko ulergarrikin hasi zena gutako bakoitzaren etengabeko zaintzarako tresna bilakatu da, eta horrek kontrako erreakzio ugari sortu ditu. Googlek berak hainbat aldiz esan du laster utziko diola cookieak erabiltzaileari, besteak beste gaur egun nagusi den Chrome nabigatzailean. Berri pozgarria litzateke, cookieen ordez proposatzen duen teknika ez balitz, oinarrian, Interneten erabiltzaile guzti-guztiok Googleren zerbitzari batean identifikatuta egotea, nahitaez.

Europako Batzordea hain dago arduratuta

internauton pribatutasunarekin, **ezen**² urtarri-laz geroztik asko zorrotzu dituen Interneteko eragileek bete beharreko arauak. Horregatik biderkatu zaizkigu azken asteotan lehenago ere nonahi topatzen genituen cookieen gaineko abisu eta kontrol leihoak. Are gehiago, webgune askotan, batez ere hedabideetan, dirua ere eskatzen hasi dira cookieak onartu nahi ez dituzten bisitariari. Labur esanda, hau da horren azalpena: "Ez badiguzu zure datuekin ordaindu nahi, diruarekin ordaindu gure edukia".

Azkenean, irtenbidea ere arazo bihurtu da: bisitatzen ditugun webguneei guri buruz zer informazio gordetzen duten kontrolatzeko sortutako arauak, azkenean, erabiltzaileok hainbeste abisu eta kontrolekin nazkatzeko arrazoi bilakatu dira. Europako Batzordeak berak esan du buelta bat eman behar diola cookieei buruzko ohartarazpenen gaiari.

Nork esango zigun galleta inozo batzuek horrenbesteko buruko mina emango zigitela!

1. Korapilatu: *nahasi, konplikatu.*

2. Ezen: *que (es), que (fr).*

LOTURAK

<https://consentomatic.au.dk/>

Consent-o-Matic, Chrome, Edge, Firefox eta Safari nabigatzaileetan instala daitekeen gehigarria cookieen gaineko abisu eta konfigurazio leihoak automatikoki betetzeko.

<https://labur.eus/galletak>

Cookieei buruzko informazio gehiago Wikipedian.

<https://labur.eus/goraino>

Cookieei buruzko azalpenak *sarean.eus* podcastean.

Egin zaitez **harpidedun**

IFK/NANA CIF/DNI..... **Izen-abizenak** Nombre y apellidos.....

Helbidea Dirección..... **Posta kodea** Código postal.....

Udalerrria Localidad..... **Posta elektronikoa** Correo electrónico.....

Herrialdea Provincia..... **Telefono zenbakia** Teléfono.....

Harpidetza..... Paperezkoa Digitala Paperezkoa+digitala

Ordaintzeko era Forma de pago

Banku bidez Domiciliación bancaria

IBAN _____ (24 digitu) _____

Sinadura Firma

aizu.eus atarian
ere egin dezakezu
harpidetza

Informazioa gure fitxategian gordeko da, eta isilpekoa da. Interesdunak aldatu edo ezabatu egin dezake. Datuak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoaren arabera zaindu eta erabiliko dira.

La información será guardada en nuestro fichero, y es confidencial. La persona interesada puede modificarla o suprimirla. El control y tratamiento de los datos se realizará en base a la Ley Orgánica de Protección de Datos Personales.

* Kontraktorik agindu ezean, harpidetza urtero berrituko da. En caso de no notificar lo contrario, la suscripción se renovará anualmente.

URTE OSOKO HARPIDETZA

Paperezkoa:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **33 €**

Ipar Euskal Herria: **40 €**

Europa: **54,5 €**

Digitala: **21 €**

Paperezkoa+digitala:

Hego Euskal Herria eta Espainia: **36 €**

Ipar Euskal Herria: **43 €**

IRATIKO BOLI-DORREAN

AntiKomunista by ZaldiEroa



Egin zaitez Korrika laguntzailea

APPa deskargatu

EKIN KORRIKARI!

15 euren truke,
garrantzitsuena lortuko duzu:
AEKren euskaltegiei laguntzea.
Horrez gain, pina eta abantailei
buruzko informazioa jasoko dituzu.



æk
23.korrika

HARRO HERRI

Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra



korrika.eus



berria fm

PODCASTA

Ziklo berria

**Kazetaritza
feminista**
erraietan
eta uhinetan

UXUE Rey

ANE

Eslaba

**Hamabostean behin, asteazkenez,
[Berria.eus/podcast](https://berria.eus/podcast) webgunean eta plataformetan entzungai.**